



Ikasle Abertzaleak-ek 25 urte

Ikoitz Arrese: «Datorren unibertsitate erreformak pribatizazioa areagotu eta parte-hartzea mugatuko du»

- **Antiglobalizazioa** Hamabost urtean gozotik gazira egin duen mugimendua
- **Hilari Pagazaurtundua** «Emakumeak erlijio bizitzan berdin, senarrik ez, baina estu lotuta bizi ginen»
- **Euskara** Sopelan kiroldegia euskalduntzea helburu
- **Net Hurbil** Aberatsek estatusa mantentzeko darabiltzaten indarkeriak
- **Kooltur Ostegunak Arrasaten** Urritik maiatzera, asteroko hitzordu finkoa du kulturak



Aurrez aurre
Salvador Cardús
Josep Ramoneda

Analisia
Enric Rimbau

Iritzia
Alberto
Lopez Basaguren

Elkarrizketa
Esther Vivas

Katalunia badoa



Azaleko argazkia:
MIKEL GARCIA IDIAKEZ
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruñia. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: GaztelukoPlaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Salburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko azaroaren 17a, 2.391. zenbakia

ASTEKO GAIA

ANTIGLOBALIZAZIOA Kapitalismoaren aurkako ikurraren bilakaera. NAGORE IRAZUSTABARRENA / 4

PERTSONAIA

HILARI PAGAZAURTUNDUA: «Bizi honetan jaso dudana guztia gizarteari itzuli beharra daukat». MIEL A. ELUSTONDO / 9

GAIK

IKOITZ ARRESE, IKASLE ABERTZALEAK: «Tokian tokiko borroka txikiak norabide berean jartzea da benetako erronka». MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 14

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Agroekologia eta autogestioa. LIDE HERNANDO / 18

IRITZIAREN LEIHOA

GATAZKAK, GAURKOTASUNA ETA AUZITEGIAK

GARBINE BIURRUN MANCISIDOR / 20

ALTERNATIBA LAUSOA JON ALONSO / 22

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Zor etikoa. AMETS ARZALLUS / 22

HEMEROTEKA Sistema honek ugaltzeko behar gaitu. CARMEN MUÑOZ /PIKARA MAGAZINE / 23

BERTSO BERRIAK Pentsioei jarriak. IÑAKI MURUA / 23

ERDIKO KAIERA

MICHAEL HARDT: «Subjektibitate iraultzaileak ekoizten dituzten artelanak izan behar ditugu helburu». HEDO I ETXARTE / 24

LITERATURA ESKOLA Hamar urtez irakurleak trebatzen. LANDER ARRETXEK / 26

KOOLTUR OSTEGUNAK Ekinaren ekinez, kultur eskaintza iraunkorra Arrasaten. IKER BARANDIARAN / 28

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA Finalurreko usaina. NEREA IBARZABAL / 30

Klik! IÑAKI GURRUTXAGA / 26

LITERATURA SAIOA RUIZ GONZALEZ / 32

MUSIKA OLATZ KORTA / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ALEA Joan ez zirenen itzulera. LANDER ARRETXEK / 35

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

IRIZAR Kooperatibagintzaren historiaurrera bidaia. URKO APAOLAZA AVILA / 39

SOPELAN EUSKARA KANPAINA Kirolegia eta futbola lehen jomugak. MARIJO DEOGRACIAS / 42

KLIMA ALDAKETA Munduko izotzak urtuko balira Baiona, Donostia eta Bilbo urpean lirakeke. O. IRURETA AZKUNE / 44

NEGUKO TREGOA Neguan etxebizitzetzi gasa eta argindarra moztea debekatu du Frantziako Estatuak.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 45

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Oligarkiaren bortizkeria nola barneratu dugun. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Kapitalismoaren aurkako ikurraren bilakaera

2003an antiglobalizazio mugimenduak gailurra jo zuen Irakeko gerraren aurka milioika herritar mobilizatuta. Inbasioa berdin gauzatu zen eta mugimendua gainbehera hasi zen. Hamar urte geroago eta krisialdi betean, non dago antiglobalizazioa –edo, zuzen esanda, altermundismoa–?

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |

ANTIGLOBALIZAZIO MUGIMENDUA ez zen 1999ko azaroaren amaieran Seattlen jaio, baina orduan egin zuen eztanda. Munduko Merkataritza Erakundea (MME) AEBetako hiri horretan biltzekoa zen, baina nagusiki internet bidez goi-bileraren aurka egindako deialdiak 50.000 pertsona bildu zituen, eta manifestazioen ondorioz, bilera bertan behera geratu zen.

Ekintzaileen ia ezusteko arrakastaren berri berehala zabaldu zen, eta munduko

hainbat erakunde eta norbanako, mugimendurekin bat egiten hasi ziren. 2000. urtean Pragako kontragailurrak Nazioarteko Mone-ta Funtsaren eta Munduko Bankuaren arteko batzar bateratua atzeratzea lortu zuen. 2001ean Munduko Gizarte Foroa sortu eta lehenengoz burutu zen Porto Alegren (Brasil), NMFren, Munduko Bankuaren edo G-8aren bileren kontrapisu gisa. Han sortu zen “beste mundu bat posible da” leloa. Urte bereko ekainean, herritarren presioaren



STEVE KAISER

MMEren aurkako protestak Seattlen, 1999ko azaroaren 30ean. Polizia manifestarien kontra piperbeltz espraia botatzen.



2003ko otsailean munduko dozenaka hiritan milioika pertsona irten ziren kalera Irakeko gerraren aurka. Argazkian, Londresko manifestazioa.

ondorioz, Munduko Bankuak Bartzelonan egin behar zuen bilera aldatu egin zen, ekin-tzaileen boikotaren beldur. Azkenean bilera bideokonferentzia bidez egin zuten, baina Bartzelonako mobilizazioek aurrera egin zuten eta 300.000 pertsona bildu ziren. Hurrengo hilabetean, 2001eko uztailean, Genoaren txanda iritsi zen. Han bildutako 150.000 ekintzaileek poliziaren errepresio basatiarekin egin zuten topo. Carabiniere batek tirokatuta hil zen Carlo Giuliani, mugimenduaren lehen biktima.

2003ko neguan, Irakeko gerraren atarian, antiglobalizazio mugimenduak gailurra jo zuen. Otsailaren 15ean miloika pertsona mobilizatu ziren Bush administrazioaren eta haren aliatuen kontra. *Bigarren potentzia* jaio zela ere iragarri zuten: kalean presioa egiten duen munduko iritzi publikoa. Baina gailurra

jo bezain pronto, mugimenduak behera egin zuen. Hurrengo hilabetean, 2003ko martxoan AEBek eta haren aliatuek Irak inbaditu zuten. Deseingainu hark agerian utzi zituen mugimenduaren ahuleziak.

Bere baitan hainbeste mugimendu, ideologia, metodologia eta antolakuntza eredu biltzen dituen mugimendu globalean zaila da barne kohesioa lortzea. Askok uste zuten, etsai komuna izaki, heterogeneotasuna ez zela arazo izango, baina nabarmen oztopatu zuen ezadostasunak arintzeko eta alternatiba bateratuak eraikitzeko bidea.

Indarkeria eta botere politikoa ezbaian

2001ean Fidel Castrok eta Hugo Chávezek Munduko Gizarte Foroan parte hartzeko asmoa adierazi zuten, baina ez ziren azaldu ez zeudelako gonbidatuta. Foroetan parte har-

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Izena eta izana

“GLOBALIZAZIO hitza bere egin dute boteretsuek nazioarteko ekonomia integrazteko modu jakin bat izendatzeko, inbertitzaileen eskubideetan oinarritzen den eta herritarren interesak kontuan hartzen ez dituen modua. Ondorioz, beste globalizazio modu batzuen aldeko *antiglobalizazio* esaten zaie, eta horietako askok, zoritxarrez, terminoa onartzen dute, baztertu beharreko propagandazko terminoa den arren. Globalizazioaren, hau da, nazioarteko integrazioaren

aurka dagoen pertsona zentzudunik ez dago. Ezkerreko eta langile mugimenduko kiderik ez behintzat, nazioarteko elkartasun printzipioa baitute oinarri, hau da, botere pribatu sistemen ordeztu herritarren eskubideak aintzat hartzen dituen globalizazioa”. Noam Chomskyk 2002an esandako hitzak dira eta ederki azaltzen dute antiglobalizazio terminoaren inguruan hasieratik sortutako eztabaida.

Globalizazioa kapitalismoa izendatzeko eufemismo gisa erabiltzen hasi zen 1990eko hamarkadan, jardueraren neoliberal basatia hartzen ari zen kutsu negatiboa uxatu nahian. *Antiglobalizazio* hitza erabiltzen lehenak ere politikariak eta komunikabide nagusiak izan ziren, beren “globalizazioaren” aurka Seattlen izandako mobilizazioak izendatzeko. Ekintzaile gehienak terminoaren aurka daude; batetik, negatiboa delako, ukazioa duelako oinarri; bestetik, mugimendua ez dagoelako giza jarduerak nazioartekotzearen aurka, ekonomia ahulenak desegonkortzen dituzten jardueraren aurka baizik. Horregatik beste hainbat izen proposatu dira mugimendurako. Eremu anglosaxoian ekintzaileek nahiago izan dute *Global Justice Movement* erabiltzea, edo gutxienez *alter-globalization* aldaera hobetsi dute. Italian Movimento No Global ere erabiltzen dute, baina hori ere prentsak asmatua da eta ez du jatorrizkoa asko hobetzen. Frantzian Ignacio Ramonetek proposatutako *altermundialisme* terminoak arrakasta handiagoa izan du eta, ondorioz, gaztelaniaren eremuan *altermundialismo* edo *altermundismo* zabaltzen ari da.

Batetik, termino sortak mugimenduaren izaera heterogeneoa erakusten du, erabaki bateratuak hartzeko zailtasunen isla da. Bestetik, *antiglobalizazio* da oraindik termino erabiliena eta, beraz, fenomenoaren identifikatzeko errazena.



tzen duten gizarte mugimendu gehienek bat egin zuten erabakiarekin. Ez zuten gobernuak foroez jabetzerik nahi eta, oro har, helburuak botere politikoa hartu gabe eskuratzeko zela uste zuten.

Gemma Galdon MRGko (Movimiento de Resistencia Global) militante izan zen urte haietan eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Gobernu eta Politika Publiko Institutuko ikerlaria da egun. “Uste genuen posible zela mobilizazio globalak ahalbidetuko zituzten erreibindikazio generikoak egitea eta, era berean, mobilizazio horiek gauzak aldatzea ekarriko zuela, botere politikoa eskuratu beharrik gabe. Baina ez zen egia”. Esaterako, Esther Vivas, Espainiako antiglobalizazio ekintzaile ezagunenetakoa, Josep Maria Antentasekin batera *Resistencias Globales* liburuaren egilea, 2009ko Europako Parlamentuko hauteskundeetan hautagai izan zen Esquerra Anticapitalista alderdiarekin. Horrela justifikatu zuen erabakia: “Gizarte esparruko erresistentzia ez da nahikoa; fun-

ITALY CALLING



DOCUMENTING REALITY



tsezkoa da, baina ezin dugu hor gelditu. Eredu guztietan egin behar da borroka eta ezin ditugu utzi politika eta hauteskundeak gaur eremua monopolizatzen duten alderdien eskuetan”.

Mugimenduko fakzio moderatuenak edo erreformatzaileenak ez zion erabat uko egin, errealismoaren izenean, alderdi eta sindikatu nagusiekin elkarlanean aritzeari. Baina gaiak beti sortu du deserosotasuna mugimenduan. Adibide gertuago batera joaz, 2001ekoartzelona mobilizazioetan, Batasuna alderdiak bat egin zuen deialdiarekin. Tenka arintzeko, azkenean, Batasunak era erdi autonomoan parte hartu zuen manifestazio nagusian, gainerako manifestarien alboan, baina haiekin nahastu gabe. Kontua da, beste alderdi politiko eta sindikatu batzuek ere (ICV, IU, UGT, CCOO...) parte hartu zutela mobilizazioetan, baina Batasuna izan zela, antza, hautsak harrotu zituen bakarra. Alderdi politikoa izateaz gain, Batasunak antiglobalizazioaren este ahulgune batekin baitzeukan lotura: indarkeria eta kriminalizazioa.

Susan George, ATTAC France-ko presidenteordea eta askorentzat mugimenduaren “biblia” den *Lugano Txostenaren* egilea 2001ean hasi zen konturatzen antiglobalizazio mugimenduak hartutako bidea eutsiezina

Ezkerrean, Genoako 2001eko udako protestaldia, G-8aren bileraren aurka. Eskuinean, protestaldi horretan carabinieri batek tiroz hildako Carlo Giuliani gaztearen gorpu.

zela, goi-bileraz goi-bilera joateko estrategiak ez zuela etorkizunik, bereziki, Giulianiren heriotzaren eta urte berean Europako buruzagien bilera batean Goteborgen poliziak erabilitako indarkeriaren ondoren. “Hura ez zen etorkizunean aurrera egiteko bidea”, azaldu zuen 2009ko elkarrizketa batean. “Hilabeteak ematen genituen poliziarekin negoziazioetan eta gero haiek ez zuten hitzemandakoa betetzen. Erabaki genuen ez geniela manifestazioak indarkeria erakustaldiak bailiran aurkezteko aukerarik emango”.

Gainera kaleko presioak ez zituen hasierako emaitzak ekartzen. “Jendea goi-bileren bidea aldatzeko itxaropenez hurbiltzen zen. Seattlen lortu genuen. Baina gero jendea konturatu zen ez zuela goi-bilera horietan inolako eraginik”, dio Eric Toussaint Munduko Gizarte Foroko nazioarteko batzordeko kideak. “Bileraren bat bertan behera uztea lortu genuen, baina epe luzeko erabakirik ez zen ikusten. Jendea eragin ahalmen eskasaz konturatu zenean, borondateak behera egin zuen”.

Kritikoek, kanpokoek nahiz barrukoek, eraginkortasunik eza egotzi izan diote altermundismoari, proposamen bateratu zehatzik landu eta helburuak lortzeko bidea urratu ez izana. Genoako Gizarte Foroko kide Salvatore Cannavok, esaterako, gogor kritikatu du

Iruñeko Planetarioa
 Antso Ramirez kalea, z/g Iruñea
www.pamplonnetario.org

Seattle baino lehen

1999ko SEATTLEKO GATAZKA antiglobalizazioaren suzko bataiotzat jotzen den arren, atzerago joan behar da mugimenduaren erroak eta lehen zantzuak aurkitzeko.

1988an NMFk eta Munduko Bankuak Berlinen (Alemaniar Errepublikaren aldean) egin zuten urteko bilera. Protestaldi gogorak izan ziren bilera oztopatu nahian. Bilera normaltasunez burutu zen arren, antiglobalizazioaren aurrekaritzat jo daiteke.

Hurrengo urtean, 1989ko uztailen G-7aren aurkako kontragailurra antolatu zen Parisen “*ça suffit comme ci*” lelopean eta herrialde txiroen zorra baliogabetzea eskaera nagusi zutela. G-7aren aurkako lehen ekitaldia izan zen; manifestazioak 10.000 pertsona bildu zituen eta ondorengo kontzertuak, 200.000. Frantziak zorra ezeztatzearen aldeko jarrera hartu zuen bilera hartan.

1994ko urtarrilaren lehenean Chiapasen zapatistak Ipar Amerikako Merkataritza Librerako Ituna

(NAFTA) indarrean jarri izanaren aurka altxatu ziren. Hasieran EZLNren helburuak eremu lokalera edo, gehienez, nazionalera mugatu arren, eskaerak pixkanaka unibertsalizatuz joan ziren. Hala, 1996an Marcos subkomandanteak mundu osoko foro bat biltzeko deialdia egin zuen. Chiapasen bertan burututako bilerara sorta hari “topaketa intergalaktikoak” ezizena ipini zien jendeak, eta hainbatentzat hantxe jaio zen globalizazio neoliberalaren aurkako mugimendua. *De Seattle a Porto Alegre* liburuan, José Seoane eta Emilio Tadei egileek zera diote: “Antimundializazio mugimenduaren genesiak Chiapaseko oihan sakonera, 1996. urtearen erdialdera garamatz. Hainbat kronista bat datoz Gizadiaren aldeko eta Neoliberalismoaren aurkako Nazioarteko Lehen Topaketa, EZLNren ekimenez 1996ko uztailaren 27tik abuztuaren 3ra arte Chiapasen burutu zena, mundializazio liberalaren aurkako nazioarteko mugimenduaren lehen mugarrria dela esatean”.

Porto Alegreko prozesua: “Munduko Gizarte Foroa erakunde handiei lotuegia dago. Esaterako Bolonia hezkuntza erreformaren aurka europar ikasleek egindako protestak bere egiteko gai ez zen izan”. Eta mugimenduaren benetako lorpenez galdetuta, Cannavok garbi erantzuten du: “Ezer gutxi lortu da”. Toussein ez da askoz baikorragoa: “Egia da herrialde askok gure erreibindikazio batzuk jaso zituztela, baina iragarkiak ziren, asmo hutsak eta ekintza gutxi”.

Ukaezina da antiglobalizazioak herritarrak biltzeko ahalmen izugarria erakutsi zuela, eta internet tresna gisa erabiltzen ere asmatu zuela. G-8a G-20ak ordezkatu izana mugimenduaren lorpenentzat jotzen du hainbatek. Baina Hegoaldeko zenbait herrialderen parte-hartzeak aldaketa nabarmenik ez du ekarri. Tobin tasari edo bankarien sariei buruzko eztabaida agenda politikoan sartu izanaren merezimendua ere kendu nahi izan dio neoliberalismoak. Fredrik Erixon Nazioarteko Politika Ekonomikorako Europar Zentroko zuzendari ohiak zera esan zuen 2010ean: “Ez dute inolako eraginik izan agenda politikoan. Sari sistemen gaiak finantza egonkortasunari dakarkion arriskuarekin, krisialdi sakon eta arriskutsu honekin du zerikusia, eta ez, antiglobalizazio taldeek erabiltzen zuten argudioarekin, pertsona errugabeen esplotazio hutsarekin”.

Krisialdia akuilu?

Krisialdiak arrazoia eman dio kapitalismo neoliberalaren aurkako mugimenduari.

Beste mundu bat posible ez ezik beharrezkoa ere badela utzi du agerian. Batzuek krisia pizterako berandu zela uste dute. “AEBen antiglobalizazio mugimendua ia hilda zegoen ordurako”, dio Bennett Baumer Indymediako sortzaileetako batek, “non daude gaur egun ekintzaile horiek? Pentsatzen dut batzuek Obamak irabaztean lagunduko zutela, eta beste batzuek irabazteko asmorik gabeko erakundeetan edo unibertsitateetan lana aurkituko zutela”. Beste batzuek krisialdiak mugimendua biziberrituko zuela uste zuten: “Neoliberalismoak esaten zigun alternatibarik ez zegoela. Antiglobalizazioak galdera ikur handi bat jarri zion planteamendu horri eta, gaur, krisi ekonomikoak ereduaren porrota utzi du agerian” zioen Transnational Instituteko kide Oscar Reyesek 2009an. Gemma Galdonen ustez, aldiz, “garaipen guztiak sinbolikoak izan dira; Wall Streetek porrot egin zuen eta ez dugu mobilizazio ahalmenik izan sistema birplanteatzeko. Nahiko galdu ta gaude”.

Esther Vivasekin batera *Resistencias Globales* lana idatzi zuen Josep Maria Antentasen ustez, krisiaren ondorioz mugimendua ez da amaitu, “zatikatu egin da”. Arabiar Udaberria, M-15, Occupy Wall Street... haren oinardeko dira. “Tokiko borroka ugalduta egin dira eta errebolta espezializatu egin da”. Harenztzat beste mundu bat posible da oraindik, eta beste antiglobalizazio bat ere bai. ■



PERTSONAIA

HILARI PAGAZAURTUNDUA

«Bizi honetan jaso dudan guztia gizarteari itzuli beharra daukat»

Berrogeita hamar urte dira erlijio bizitza hartu zuenetik. Vedrunako karmeldarra da. Gaztetatik ari da feminismoan, Eliza aldatzen saiatzen, mundu hobea nahi. Zoriontsu da, helburuetariko asko bete dituela dio.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco



HILARI PAGAZAURTUNDUA

Berrogeita hamar urte karmeldar.

1944an jaio nintzen, Arakaldon. 68 urte ditut, 69 abenduan. 18 urte nituen erlijio bizitzaren hautua egin nuenean.

Erljio bizitza, eta kaleko bizitza: feminismoa, Eliza berria, konpromisoa...

Ez naiz bakarra. Askok dira lan horietan ari direnak. Baina, jakina, "erlijiosoak" esan eta abituaren irudia datorkigu. Dena dela, asko gara lan horietan ari garen emakumeak. Egia da, ez daramagu hori erakusten duen txartelik, baina emakume ezkonduak, edo ezkongabeak ere, ez darama, eta hala ere, lanean ari dira hainbat arlotan. Bestalde, erlijio bizitzaren irudi hori azpikoz gora jarri behar dugu: abitua, alegia. Jesus bera, Nazareteko bideetan barna zebilelarik, ibili zebilen, besterik gabe. Inori hurreratuko zitzaion, sendatuko zuen, ukituko zuen hau,

hura... Ez zuen arretarik ematen. Geroko kontua da ospea, ez hasierakoa. Gizon-emakume asko ari dira lanean, mundu hobe baten alde, eta milioika keinu horiei esker ez da lehertzen mundu hau, nahiko gaizki dago-eta.

18 urte zenituen hautua egin zenuenean. Handik zazpi urtera, botoak egin zenituen, betiko, erlijiosoen artean abitua nagusi zen garaian.

Eta hasieran abitua ibili nuen neuk ere. Baina hamazazpi emakume ginen, oso borrokalariak, mundua aldatzen ari zela ikusten genuenok, eta erlijio bizitza ere aldatu egin behar zela konturatzen ginenok. Abitua jantzi genuen, bai, baina erantzeko gutzitzko intentzioarekin. Hamazazpi emakume haiek harremanetan gara oraindik, berrogeita hamar urte eta gero ere! Batzuek utzi egin zuten bizimodu hura, Kontzilio ondoko urteak ziren, garai latzak, urte gatazkatsuak... Bilbon ikasi nuen, Barreinkuako karmeldarren ikastetxean. 1973an egin nituen azken botoak eta, ordurako, emakumea mundu berriak deskubritzen ari zen. 68ko Maiatza izana zen, eta horrek ere eragin zigun. Gasteizko karmeldarren komentuan bizi nintzen garai hartan, eta bateko eta beste albesteak iristen zitzaizkigun. Tartean, Parisko Maiatzekoak, Burgosko prozesua, ETaren hastapenak...

Denok berdín jasotzen zenituzten albiste haiek, ala moja batzuk besteak baino sentiberagoak zineten?

Denok berdín, behin ere ez. Inoiz ez. Kontzientzia oso gauza pertsonala da. Hala dio oraingo Aita Santuak ere, ezta? "Har ezazu gogoan zeure kontzientzia". Zenbait jendeak behin ere ez du ernai kontzientzia. Beste batzuek, aldiz, azkarrago egiten dute laster-

NORTASUN AGIRIA

Hilari Pagazaurtundua Larrazabal (Arakaldo, 1944). Moja karmeldarra, emakume konprometituta. Nazareteko Jesus du erakusle, eta haren bideari jarraiki, pertsona du ardatz. Feminismoa, Eliza bestelako bat... Eta, beti, proiektuak, pertsona helburu, behartuak, baztertuak, immigranteak... Caritas Laguntza-n ari da 2001etik hona. Erljiosoak izan ez balitz, emakume konprometitua izango zatekeen. Hala ere, damurik ez du, emakume ezkondu askori eman ez dizkion aukerak eman dizkiolako berari erlijio bizimoduak. Esperantza du Frantzisko Aita Santuan, "Egunsenti berri bat".



Altza

“AEBetatik Altzara etorri nintzen. Azpiegitura gabezia handia zegoen. Auzoekin bildu eta elkarteak sortu genituen, era guztietakoak. 1980an berrogeitaka elkarte genituen Altzan, hogeit mila laguneko auzoan. Urte batzuk hor eta Gizarte-langintza eskolan jardun nuen irakasle. Gero, Aterpen lan egin nuen hamabi urtez, kaleko jendearekin. Boluntarioak ginen denok. Ehun baino gehiago ere izan ginen. Itxaropen Telefonoa ere abiarazi genuen... Harako fitxatu nuen Esperantza Miner, emakume bikaina, oraindik orain hil da. Blanca Garzia ere hantxe utzi nuen, Aterpera joan nintzenez. Beste emakume bat, handia, Esperantza Arrue...”

ka. Beharbada horietarikoa naiz ni: azkarrago egin nuen lasterka, baina ordurako asko ari ziren lasterka, maratoia egiten. Hamazazpiko talde hartan bertan, hamar-hamabi bat ginen azkarrago ari ginenak. Ez nintzen ni bakarrik. Bagenituen ideiak, asmoak, gogoak, baina ezin adierazi, ezin kanporatu, Elizaren egitura oso indartsua zen-eta orduan. Baina handik eta hemendik saiatu eta zirrikituak baliatu genituen. Beti esaten dudana, eta esaera ez da nirea: “Horma guztiek ere, baita sendoenek ere, dute pitzatu txiki bat. Hasi hortik!”. Horrela hasi ginen gu. Gauza txikiak eginez abiatu ginen, oinez.

68ko Maiatza, Burgos, ETA... Gizonezkoen aurpegiak dira protagonista nagusi. Abituak utzi zituztenak ere, gizonezkoak. Omen. Eta emakumea?

Garai hartan ez zen gutaz hitz egiten. Emakumea ez zen “inportantea”. Ez gintuzten baloratzen, eta ez gintuzten baloratu harik eta esaten hasi ginen arte: “Gu ere bagarela!”. Emakumeak gizarte honen parte inportantea gara, erdia baino gehiago gara, baina oso astiro esnatu ginen. Bortxarrik gabeko iraultza izan zen. Horretaz ez da hitz egiten,

baina hitz egin beharko litzateke. Ez dugu bortxarrik nahi, kanpotik datorkigu biolentzia, baina guk bortxarrik gabe egin nahi izan dugu borroka, gizonok ere horretan sar zaituzten saiatu gara, eta lortu ere dugu poliki-poliki. Aldaketak eragin ditugu, bortxarrik gabe, bortxaz betetako munduan. Guretzat ez zen beste estrategiarik. Bagenekien bortxaz jokatzu gero erreka galduko genuela. Eta bestelako bideak saiatu genituen, aldaketa helburu. Esate baterako, 1980an, Amerikatik itzuli eta Altzara joan nintzen bizitzera.

Donostiako auzoan...

Bai, Donostian. Altza, langile auzoa, bikaina, ekintzaile mordo bertan... Era askotako elkarteak sortu genituen: hirugarren adinekoak, emakumeak... Gogoan dut emakumeak ukatu egiten ziola bere buruari dirua gastatzeko eskubidea. Pentsatu ere ez tabernara bera bakarrik sartu eta kafea hartzea. Hortik hasi ginen: “Astean zenbat gastatzen du zure senarrak? Zenbat gastatzen duzue biok batera igande arratsaldeko paseoa?”. Kontuak egin eta erabaki genuen: “Bada, zuk ere baduzu 50 pezeta gastatzeko eskubidea”. Hortik hasi ginen emakume elkarte hartan. Kontzientzia hartzea izan zen. Emakume haietariko askok lan egin zuen ezkondu aurretik, ezkondu eta utzi egin zion kanpoko beharrari. Hala ere, uste zuten etxeko dirua senarrarena zela, ez beste inorena. Erljio bizitzan, berdin, senarrak ez, baina estu lotuta bizi ginen. Dena kuestionatzen hasi ginen, galderak egiten, gauzak zalantzan jartzen...

Amerikatik itzuli zinenean ari zara...

Bai. Gizarte-langintza ikasi eta AEBetara joan nintzen 1971n, sei urteko. Karmeldarrek komunitateak ditu Amerikan, Latinoamerikan batik bat. Baina Gizarte-langileak behar zuten Washingtonen, joateko gonbita



Liburu azoka

Tolosan, azaroaren 15etik 24ra San Francisco.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

egin zidaten, eta hantxe izan nintzen, Distrito Federalean, Erdialdeko Amerikako jendearekin lanean. Latinoak asko ziren han ordurako. Emakume mugimenduak indarra zuen, klase ertaineko emakumeak, esan nahi dut. Behe mailakoak lanaren estutasuna bizi zuen, ez zuen burua beste ezertan pentsatzeko. Nik, berriz, hauekin egiten nuen lan, eguneroko arazoetan laguntzen, eta emakume kontzientzia hartzen ere laguntzen. Ingelesa ikasi behar zuten, seme-alabak zaindu, dirua bidali etxera... Ezin, bada, emakume kontzientziaz pentsatzeko denborarik izan. Hala ere, tarte batzuk hartu eta saiatu ginen horretan ere.

Zer ikasi zenuen Washingtoneko urte horietan?

Nixonen garaia zen, Watergate kontua eta beste. Amerikako gizarte hura oso umea iruditu zitzaidan, nerabea. Ordu arte Konstituzioa gauza sakratutzat zuten, beraien ustez inork ez zuen testu hura bortxatu. Eta horretan, Nixon presidenteak Konstituzioa urratu zuela ikusi zuten. Herriaren desilusioa! Vietnamgo itzulera ere hor zen, beterranoak zeharo erasanda zetozen; burutik erasanda, alegia. Vietnamgo gerraren kontrako jende mobilizazio handiak izan ziren. Jendeari zerbait hautsi zitzaion barruan. Konbultsio handia izan zen. Agintariengan sinesten zuen, baina ikusi zuen ez zegoela sinesterik... Gogoratzen naiz Arizonan izan nintzela sei hilabetez, Merikopa herrian, Mexikotik laranja bilketara zetozen migratzaileekin.

Rio Grande dugu hor...

Rio Grandetik edo desertutik barrena etortzen ziren. Etxalde handietara joaten ziren, Arizonako desertuaren erdian. Oasi txikiak ziren desertuan. Gizarte-laguntzaile sartzen nintzen soroetara, giza laguntza zen nirea. Beste batzuek, laneko egoera aztertzen zuten. Behin, egun batean, soroetatik bota gintuzten. Jakina, baimenik gabe sartzen ginen. Salatu egin gintuzten eta epaitegieta-

Gerra eta politika

“Komentuan, gure egitura oso estua zen. Kanpoan zer gertatzen zen jakiten genuen, hala ere. Familiaren bisita jasotzen genuen eta ez ziguten ezer ezkututzen. Kontatu egiten ziguten. Beti hitz egin izan genuen etxean honetaz eta hartaz. Gerra, adibidez, buruz ikasi nuen. Eta gerra ostearen berri ere izan nuen, nahiz eta nik urrunago bizi izan nuen kontu hori. Gure etxean ohikoa zen gerraz eta politikaz hitz egitea, beste etxe askotan ez bezala”.

Euskara

“Gure etxean, Arakaldon, oso euskaldunak ziren, abertzaleak. Bai aita, eta bai ama. Etxean euskaraz hitz egin ziguten, txikitatik. Euskaraz hazi gintuzten sei neba-arrebok, euskaraz baino ez! Baina eskolara joan, eta gaztelania zen dena. Gaztelaniara jarri ginen. Bilbora joan ikastera, eta gaztelania. Gasteizen, berdin. AEBetan, latinoamerikar komunitatearekin lanean... Euskara galdu nuen arte. Dena ulertzen dut, baina kostatu egiten zait hitz egitea”.

ra joan ginen. Oso adierazgarria izan zen: epaileak galdetu zidan ea zergatik ez nuen sheriffarengana jo. Eta nik: “Nire eskarmentuaren arabera, nire lurraldean inoiz ere ez nuke poliziarengana joko laguntza eske! Pentsatu ere ez!”. Garai latzak ziren. Manifestazio txiki bat egiten genuelarik, ondoan genuen polizia, baina gu babesten, ezer gerta ez zekigun. Gure manifestazio eskubidea zaintzeko zegoen han polizia! Etxe Zuriaren aurrean ere manifestatu ginen. Arizonako hartan hogeita hamarren bat ginen taldean: argazkilariak, zinemagileak, eskubide zibilen aldeko ekintzaileak... Denetariko jendea. Sei hilabete egin nituen han, eta lan esperientzia zoragarria izan zen. Gobernuak ordaindu zidan, ez pentsa! Jakin dudanez, haien lan egoerak ere onera egin du, eta poztan naiz. 1979 zen orduan. Urte asko dira ordutik hona...

Arizonako epaileak galdetu zizuna, ea zergatik ez zenuen sheriffarengana jo. Zuk, zure jaioterrian horrelakorik pentsatu ere ez zenuela egingo...

Nik ez. Baina nork bere iritzia izango zuen horretaz, gure hamazazpiko talde hartan. Nork bere joera politikoa eta soziala zuen. Ezberdinak ginen.

1975, Franco hil zen urtea. Haren erregimen faxista indarrean zela joan zinen Washingtonera.

Han nintzen, bai. Deia jaso genuen Espainiako enbaxadatik. Han ginen espainiar komunitate guztiei hots egin ziguten, Franco hil zela esanez.

Zuen erreakzioa?

Zeuk pentsatu! Kar, kar, kar, zeuk pentsatu! Batzuk pozik. Tartean bagenituen amerikarrak ere, eta haiek ez hotz eta ez motz hartu zuten albiste. “Azkenean!”, esateko garaia izan zen.

Oraindik orain Gasteizen izan dugu Vicenç Navarro, Politika Publikoetan katedraduna. Zioen oraindik ere erregimen faxista haren

AZKEN HITZA

Arrastoa

“Emakume naizen aldetik, erditu banintz bezala da. Ez dut mundura umerik ekarri, baina bai proiektuak: gizartean arrastoa utzi dut haien bidez. Ezin da mundutik ibili arrastorik utzi gabe. Arrastoa utzi beharra dugu norbaitengan, edo zerbaitetan, baina arrastoa utzi”.

ondorioak bizi ditugula, demokraziaren ahula eta beste.

Bai, bai... Begira, Franco hil zenean, bi bertsolari izan genituen Washingtoango komentuan. Idaho aldetik zetozen, nonbait. [Jon] Lopategi zen bat, haren bi arreba gutarrak dira-eta, moja karmeldarrak, eta Washingtonen ziren gurekin. Bertsolariak, Lopategiren arrebak ikusteko aitzakian geratu ziren gurean. Bertsoan ospatu genuen Franco hil zen eguna!

Zer ekarri zenuen AEBetarik?

Gauza asko, eta onak. Batetik, bestelako konfesio kristau batzuk ezagutu nituen. Hemen ez zegoen nazional-katolikotasuna besterik. AEBetan hainbat komunitaterekin jardun nuen lanean. Kristauak ziren batzuk, eta beste batzuk ez. Hala ere, komunitate latinoamerikarraren alde egin genuen lan guztiok, ez zen besterik, ez zen borrokarik, ez errietarik. Nork bere sinestea zuen, baina batera ari ginen lanean. Bestetik, Amerikako jendea ezagutu nuen, solidarioa ezin gehiagoan, borrokalaria. Giza elkarteak milaka ziren. Oso herri solidarioa da. Hemen, nekez ikusten dut horrelakorik. Urteak daramatzat hemen, baina ez dut elkartasun edo boluntario kulturarik ikusten. Ipar Amerikan, lan eske joan eta ikaragarri baloratzen zuten boluntario lanen bat egin izana; ikasle garaian, adibidez. Hemen ez dago horrelakorik. Hemen, oraindik, solidarioagoa da emakumea, gizona baino. Gizona ez da, oraindik, elkartasun lanetan burubelarri murgildu. Tira, Helduak elkartean gizonezkoak dira gehienak, indarrez ari dira. Baina elkartasun kultura, solidarioarena, urruti daukagu. Nolabait esatearren, bizi honetan jaso dudak guztia gizarteari itzuli beharra daukat, eta ez, nahitaez, soldata truke. Baita soldata truke ere, denok jan behar dugu-eta, baina ez bakarrik. Bizitza luzea da, gero eta bizitza kalitate handiagoa dugu, eta kontziente izan behar dugu: jaso dugun beste itzuli behar diogu gizarteari. Are gehiago gure belaunaldiak. Nire belau-



naldian emakume askok hamaika urte baino ez zuen eskolara joateko aukerarik izan. Nik ikasteko zoria izan nuen, neure burua presatzeko egokiera, eta neure herrialdetik kanpora joan eta esperientzia izateko modua. Ez zen oso gauza normala, egia esan. Nire belaunaldiko emakumeak borrokatu egin dira, eta horri esker, gizonak baino prestakuntza handiagoa dute. Gizonak uste zuen nahikoa zuela lan egitea –batzuetan ez zuen beste erremediorik, lana beltz egitea baino–, baina emakumeak bestelako sentiberatasuna izan zuen eta bere burua prestatu zuen.

Gizarte-langintza, hainbat eta hainbat elkarte eta proiektu Altzan, Itxaropen Telefonoa, Aterpe, Caritas Laguntza, Stop desjabetzeak...

Proiektu guztiak dira onak. Proiektu guztietan dago jende argiegina, konprometitua... Amnistia Internazionalerako kide ere banaiz, eta neure egiten dut haren lema: “Ilunpearen handian, ez ezazu hura madarikatu. Aldiz, piztu ezazu kandela bat”. Uste dut mundu honetan kandela asko piztu behar direla, zeinahi dela ere, baina kandelak piztu, argi txiki bat piztu. Horixe da nire pentsatzeko era, eta horrexek mugitu nau bizi honetan. Eta Jesusen proiektuak hori dena hartzen du bere baitan. Gizatiartzaila da, lehen-lehenik, eta horretan saiatzen naiz ni ere, jendea gizatiartzten eta den horretan onartzen. Beste ezer ez. ■



«Tokian tokiko borroka txikiak norabide berean jartzea da benetako erronka»

Iruñeko Txantrean jaio zen Ikasle Abertzaleak (IA) antolakundeak 25 urte bete ditu eta ospatzeko, Azken Ikasle Dantza egingo dute azaroaren 16an, Donostian. “Azken dantza” izendatu dute, Ikasle Egunaren harira ez dutelako aurrerantzean jaialdi erraldoirik antolatuko, baina oraindik ere borrokatzeko erronka ugari dituztela eta ikasle euskaldun, ezkertiar eta feministak iraultzarako gogoz daudela argi utzi digu Ikoitz Arrese IAko kideak.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

“Ikasle euskaldun, ezkertiar eta feminista” gisa definitzen du IAk bere burua. Hori da baita ere eskatzen duzuen hezkuntza eredua? Zenbateraino gaude gertu eredu horretatik?

Oraingoz gehiago da gogoia, errealtatea baino. Azken kongresuan berretsi dugu gure proiektua, gure eskola eredua, Euskal Eskola Nazionala dela, euskalduna, ikasleak balore ezkertiarretan heziko dituen eta errotik feminista. Proiektu hori lortzeko tresna izan nahi du IAk eta beraz, honek ere izaera bera du: euskalduna, ezkertiarra eta feminista. Egungo testuinguruan ordea, ez dugu ikusten eskola eredu hori garatu daitekeenik, Euskal Herria zatituta dagoelako lurraldetasunari begira edota sistema patriarkala delako nagusi. Zazpi lurraldez osatutako Euskal Herri euskaldun, feminista eta sozialista batean irudikatzen dugu gure proiektua.

LOMCE legea dago orain pil-pilean. Instituzioei eskatu behar zaienetik harago, ikasleek zein rol dute edo izan behar dute honetan guztian?

Ikasleari zuzenean eskatzen dioguna da borrokara lotu dadila, dituen kezka eta zalantza guztiak antolakuntzaren bitartez argitu eta borrokatu ditzala, antolatzen ez den ikasleriak oso zaila duelako nahi dituen helburuak lortzea. Gure asmoetatik gertuago edo urrutiago egon, LOMCE da orain dugun eraso eta antolatzen ez bagara,

ez dugu lortuko lege hori gelditzea. Edozein esparrutan borrokatzeko deia egiten diegu ikasleei, dela ikasle batzordean, agerraldi batean parte hartuz, manifestazioetara joanez... Aktiboki joka dezatela, orain LOMCE delako, baina aurretik LOE zegoen eta gobernuz aldatzean beste bat etorriko da. Eta instituzioei eskatzen diegu ikasleriak dioena entzun dezatela eta kontuan har dezatela, LOMCEk ikaslea jartzen duelako hezkuntza erreformaren erdigunean, baina inoiz ez da ikaslea aintzat hartzen, alderdi batekoak zein besteak izan.

Hain juxtu, duela gutxi hezkuntza eragileak deitu zituen Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak, euskal curriculumak garatzea xede duen Heziberri 2020 plana eztabaidatzeko, baina ikasle antolakunderik ez zuen gonbidatu. Ikasleen ahotza ez dela aintzat hartzen iruditzen zaizue?

Hainbat forotan ez. Heziberri, Jaurlaritzak ez du inongo asmorik izan ikasleek parte har dezaten, ez dute

nahi. Eguneroko jardunean berdin, hezkuntza sistema guztia dagoelako ikasleontzako pentsatuta baina ikasle gabe. Mobilizatzen den hezkuntza komunitatearen gehiengo ikasleria da, baina alor instituzionalean parte-hartze oso mugatua dugu. Hezkuntza ertaineko eskola kontseiluan adibidez, seina guraso, ira-

“Boloniak bete-bete urratu ditu ikasle eskubideak. Datorren unibertsitate erreformak ere hezkuntzaren pribatizazioa areagotu eta parte-hartzea mugatuko du”



kasle eta langile daude, baina bi ikasle baka-rik, eta unibertsitateko klaustro eta kontseiluetan, EHU-n behintzat, %51 irakasleak dira. LOMCE-rekin, ikasleoi ematen zaigun erabakimena are urriagoa izango litzateke, kontsultibo bilakatzen delako. Eta datorren unibertsitatearen erreformak ere ikasleen ordezkari-tza txikitzea bilatzen du. Hein handi batean, dena instituzionalizatzea da helburua, sistemaren barruan itota egotea, adibidez EHU-n ikasgai bat euskaraz eskatzeko milaka marko, bozketa eta izapide pasa behar direlako. Kaleko manifestazioetan makina bat ikaslek parte hartzeak ez du legitimitaterik egungo sistemaren barruan, organoetan hartzen direlako erabakiak, eta organoak zenbat eta gorago egon, orduan eta urriagoa da ikaslearen ordezkari-tza. Sistemaren trikimailuak dira, ikaslearen eskaera legitimoak bidean galdu daitezten.

Harremanik baduzue EHU eta NUPeko errektoreekin?

Ez, gure parte-hartzea modu instituzional batean ikusten dutelako eta badakigulako hori tranpa dela. Goi mailako organoetan %51 katedradunek osatzen dutenean, zertarako nahi dute ikasleak egotea, gure ordezkari-tza %5 edo 10era mugatua baldin badago? Aurpegia zuzitzeko nahi gaituzte, parte hartu dugula esateko, baina parte-hartze asistentziala litzateke, praktikan ez da errealia. Beraz, instituzioek benetan aitortzen ez gaituzten bitartean, guk ere ez ditugu legitimatuko.

“Pertsona aske eta burujabeak hezi nahi ditugu, kritikoak, bizitzari aurre egiteko gauza. Feminismoaren bitartez baino ezin da hori lortu”, adierazi du Ikoitz Arresek, EHUren Ibaetako campusean egin dugun hitzorduan.

“Aniztasunean sorturiko proiektu asko dago, badugu euskal curriculum bat, ikasle eleanitzak lortzeko proposamena... Zertarako Heziberri? Zergatik ez garatu dagoena?”

Heziberri 2020 ez da euskal curriculum-a osatzeko egiten den lehen saiakera. Zer ezaugarri izan beharko lituzke, ezinbestean, euskal curriculum-ak?

Euskal Herrian kokatutako curriculum-ak balio beharko luke, euskara ardatz, eduki jakin batzuk transmititzeko, baina baita balore batzuk. Hots, eztabaidaren muina ez da Espainiako historia ala Euskal Herrikoa ikasiko dugun edo euskarari eta ingelesari zenbat ordu emango dizkiogun (LOMCEk azaleko eztabaida horretara garamatzen arren), garrantzitsuena da edukien eta balioen arteko uztarketa lortzea. Duela sei-zazpi urte, hainbat eragileren parte-hartzearekin Ikastolen Elkarteak, Udalbiltzak eta Sortzen-Ikasbatu-zeak osatutako curriculum-aren diseinuari gure ekarpenak egin genizkion ikasleok, eta curriculum-aren funtsa hori izan beharko litzateke:

herritik eta herriarentzat sortua, eta ez delegaritzak edo eragile zehatz batek eginga, hezkuntza komunitatearekin eta herritarrekin batera sortua baizik. Heziberri-rekin, batetik, formetan ez gaude konforme, ez gaituztelako ez kontuan hartu ez informatu, eta bestetik,

plana guztiz anbigua da, ez du balio LOMCE-ri aurre egiteko; apurka-apurka hezkuntza sistema propioa eraikitzeko balio du?, baliteke; curriculum-aren osaketan aurrerapausoak emateko?, baliteke, baina Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaz baino ez gara ari, ez ditu Nafarroa eta Iparraldea kontuan hartzen.



Asmoa ona izan liteke, baina gabezi gehiago ditu, definitutako onurak baino. Hezkuntzan aurrerapauso handiak eman dira gurean, aniztasunean sorturiko proiektu asko daude: badugu euskal curriculum bat sortua, badugu ikasle eleanitzak lortzeko Euskararen Gizarte Kontseiluak aniztasunean egindako proposamena; zertarako Heziberri, hori guztia baldin badago? Zergatik ez ditugu hartzen dagoeneko ditugun proiektuak eta horiek garatzen?

Etsita eta geldirik ikusten dituzu ikasleak, ala gogotsu eta aktibo?

Unibertsitateko Bolonia erreformarekin, sistemaren barruan sartu gaituzte: gaur egun, badirudi ezinezkoa dela ikastorduetan antolatzea edo manifestazio batera joateko klase bat uztea, derrigorrezko klase presentzialak ditugulako edota hainbat protokolorengatik ordur aldatzea ezinezkoa delako. Baina gero eta gordinago ikusten dugu gure etorkizuna eta izugarritzko grina daukagu gauzak aldatzeko, mobilizatzeko. Egutero dago hitzaldi, mobilizazio, greba, itxialdi edo elkarretaratzeren bat hezkuntzan.

Antolatze eta mobilizatzeko oztopoez ari zarela, Euskal Ikasle Eskubideen Karta du IAk. Zuen eskubideak urratu eta eraso direla sentitzen duzue?

Kartan bederatzi eskubide zerrendatzen ditugu, ez horiek baino ez direlako borrokatu behar, ikasle izate soilagatik ditugun eskubideak direlako baizik, eta egia da azkenaldian etengabe urratzen ari direla eskubideok. Boloniak bete-betean denak urratzen ditu: hizkuntza eskubideak, parte hartzeak, antolatzeak, greba eskubidea...

Bolonia aipatu duzu. Garai bateko polemikak polemika, martxan dago jada unibertsitate guztietan.

Ezkerreko irudian, LOMCEren aurka IAk deitutako manifestazioa ("lehen erronka eta gordinena, LOMCEri aurre egitea da, gainerako hezkuntza komunitatearekin batera"). Eskuineko argazkian, IAk antolatutako herri eskolak, Gasteizen, "Euskal Eskola Nazionala apurka-apurka eraikitzen joatea" baitute xede.

2006an esan genuen Boloniak unibertsitateen pribatizazioa ekarriko zuela eta ikasketetara soilik dedikatu ahal izango den ikaslearen figura bultzatuko zuela. Erotuta geundela eta aldaketa pedagogiko onuragarria izango zela erantzun ziguten. Gaur egun, zoritxarrez, iragarri genuen mamua bete da eta gero eta tasa altuagoak ditugu, batez beste %21 garestitu dira matrikulak, bekak murriztu dira, kasik behartuta gaudu graduondokoak egitera eta hauen prezioak izugarri garestitu dira, eta gainera enpresa pribatuek gero eta eskumen handiagoak dituzte unibertsitateetan, baita graduondokoetan ere: El Correo Masterra kazetariarentzat, Quiron Masterra medikuentzat... Kezkatzen gaitu, baita ere, ikaslea orain egun osoan dagoela unibertsitatean sartuta, eskolak, tutoretzak eta praktikak direla, kreditu sistema aldatu delako eta ikasleek sartu beharreko orduen kopurua oso handia delako; erabat presentzial bilakatu dute irakaskuntza, eta ez dago denborarik ikastordu horietatik kanpo ikaskuntza prozesua zure kabuz osatzeko. Ikasketak garestitu egin dira, baina denborarik ere ez daukagu lan egiteko, ikasketak ordaindu ahal izateko. Plataforma birtualetan, liburutegian, praktiketan... sartutako orduak ere kontrolatzen dituzte.

LOMCEz asko hitz egiten da eta gutxi dakigu unibertsitatean ezarri nahi duten erreformaz...

Oraindik ez dakigu oso ondo zer gertatuko den, baina munduko merkatal elkarteak eta Europar Batasunak adostu zuten zerbitzuen pribatizazioan hezkuntza sartzea eta horren ondotik Bolonia etorri zen. Bada, orain Bolonia II datorrela ikusten dugu, bigarren fasea, 2015-2020 epean gauzatuiko den erreforma, eta gure ustez

sakondu egingo du zerbitzuen pribatizazioan eta parte-hartzea gehiago mugatuko du. Errektoreak, esaterako, ez du zertan unibertsitate barruko norbait izan behariko, kanpo-

"Organoak zenbat eta gorago egon, orduan eta urriagoa da ikasle ordezkaritza. Aurpegia zuritzeko nahi gaituzte, baina instituzioetan parte-hartze asistentziala dugu, ez erreala"

tik datorren gestorea izan daiteke. Horrekin batera, unibertsitate erreforma guztiek adimen zientifiko-matematikoaren alde egiten dute, letra eta humanitateetako karrerak baztertuz.

Feminismoaren aldeko apustua egiten duzue. Genero berdintasuna indartzeko plana abiatu berri du Jaurlaritzak 50 ikastetxetan. Serio hartzen al da gai hau?

Jaurlaritzak plana atera du, bai, baina ez du landu mugimendu feministarekin eta hezkuntza komunitatearekin. Instituzioetako aditu batzuek egin dute plana eta hortaz, jatorrian jada gabeziak ikusten ditugu. Hone tan ere, planarekin baino gehiago formekin ez gaude ados. Gaur egun mistoak dira eskolak, baina sistema patriarkala bermatzen jarraitzen dute, datuek eurek argi uzten dutenez: karrera teknikoetan, esaterako, gizonen askoz gehiago dago emakumezkoak baino, txikitatik hala hezi gaituztelako. Hezikidetzak da eskola parekide eta feministan dagoen bide bakarra, generoen roletatik at heziko gaituen eskola eredu, eta eskola feminista nahi dugula diogunean ez gara soilik esaten ari sexismoa edo jarrera homofobikoak gaingitu nahi ditugula, baizik eta benetan ikasle askeak sortzeko feminismoa dela oinarria. Neskak eta mutilak modu berean hezi nahi ditugu, baina pertsonak hezi nahi ditugu, pertsona aske eta burujabeak, kritikoak izango direnak, bizitzari aurre egiteko gauza. Hori feminismoaren bitartez baino ezin da lortu eta uste dugu Jaurlaritzaren plana baliagarria izan daitekeela konkretuki sexismoari edo homofobiari aurre egiteko, baina ez du hezikidetzaren kontzeptua modu integralean lantzen. Eskola komunitatearekin eta mugimendu feministarekin batera osatu izan balu, aberasgarriagoa litzateke.

Azken Ikasle Dantza egingo duzue azaroaren 16an.

Herri mugimendu garen heinean, eta festibalek izan duten gainbehera aintzat hartuz, iruditzen zaigu ez dugula dedikatu behar formatu honetako Ikasle Egun handiak antolatzeraz, azkena izango da hau, hortik izena. IAren 25. urteurrena baliatuz, Ikasle Egun honek balio du IAren egin diren ikasle ohiak aurkezteko, Marian Beitialarrangoitia politikaria edo Azaitz Garcia Euskal Herrian Euskarazeko kidea kasu. Nolabait irudikatu nahi dugu IAren hezi garen militanteok, hezkuntzaren eremutik Euskal Herria eraldatu nahi izan dugunok, ondoren ere borrokan jarraitu dugula bestelako Euskal Herri baten alde. Atzera begiratu nahi dugu, baina aurrera begiratzeaz utzi gabe.

Iraultzaile

“Sistema hau errotik aldatu nahi dugulako gara iraultzaileak. Ez dugu egungo sistemara egokitu nahi, ez dugu dauden instituzio guztietan parte hartu eta emendakinen bidez legea aldatu nahi; kalean dago gure bidea, mobilizazioan, aztoratzean, inkonformista eta errebelde izatean. Gure eskubideak errespetatzen ez dituen irakasle bat baldin badago eta harekin hitz egin ostean berdin jarraitzen badu, bere amesgaiztoa izango gara eta panfletoak aurkituko ditu bulegoan, ez gara klasera joango, aulkiei buelta emango diegu... Hori da gure militantzia eredu. Verti ez dizkiogu gutunak bidaliko asko garela eta legea bertan behera uzteko eskatuz. Ikastetxeetan itxialdiak eginez, jarrera desobediente eta intsumisoak bultzatuz egingo diegu aurre”.

Nola laburbilduko zenuke IAren 25. urteotako ibilbidea, izandako lorpen eta traba nagusiak?

Trabak etengabeak izan dira gobernu eta administrazio ezberdinen aldetik, ikasle mugimendua, euskal hezkuntza eta ondorioz Euskal Herria bera ukatzeko: LOU, LOMCE, Bolonia, hiru-eleko eredu, Bake Plana, TIL, Ikasleriaren Eskubide eta Betebeharren Dekretua... Errepresioa itogarria izan da: polizia ikasle mobilizazioetan, kameraz jositako unibertsitateak, atxiloketak... Kontrara, oso positibo baloratzen dugu IAren jarduna, balio izan duelako hainbat eta hainbat belau-naldi militantzia hezteko: 15 urterekin inkonformistak gara, mundua aldatu nahi dugu eta IAk tresnak ematen dizkizu horretarako, protestarako eta aldarrikapenerako, bakoitzak bere neurrian. Umiltasunetik, uste dugu ekarpen handia egin diogula hezkuntza munduari, tartean Boloniaren kontrako edo hezkuntza euskalduntzeko borrokan. Maribi Ugarte buru parlamentaria, Julen Arzuaga Giza Eskubideen Behatokiko kidea, Ainhoa Etxaide sindikalista edota Izaskun Guarrotxena Bilgune Feministako bozeramailea, Euskal Herriaren askapen borrokan esanguratsuak diren asko eta asko, IAko kide izan ziren, lehenengo urratsak ikasle antolakunde honetan eman zituzten, eta alde horretatik harrotasun handiz defintzen dugu IA iraultzaile eskola gisa.

Zeintzuk dira etorkizuneko erronka nagusiak?

Lehen eta gordinena, LOMCEri aurre egitea, gainerako hezkuntza komunitatearekin batera. Bigarrena, egunetik egunera ikastetxe, fakultate, herri eta auzoetan egiten dena ekarpen gisa hartzea, Euskal Eskola Nazionala eratze bidean. Sorraluzen inauterietako unitate didaktiko bat egitea, Orion herriko curriculum osatzea edo Nafarroako Unibertsitatean eskolaldia bukatzean ikasleek euren kabuz euskara eskolak antolatzea sekulako ekarpenak dira. Borroka txiki horiek dira benetako erronka, bestela “LOMCEri ez” horretan geratzen gara, beti ez esaten, eta guk badugu baiezkoa: gure ikasle estrategia, tokian tokiko borroka horiek guztiak norabide berean jarri eta Euskal Eskola Nazionala apurka-apurka eraikitzen joatea.

Gose taldeak egin du 25. urteurrenako abestia. Heldu al da abestian aipatzen den “ikasleen matxinada”?

Gazteak gara, etorkizun oso iluna murriztu digute eta gauzak aldatu behar ditugu. Ikasleok iraultza egiteko gogoz gaude. Heldu da matxinada? Bai, baina matxinadaren hasiera baino ez da hau, LOMCE dago, baina asko dago egiteko eta etengabea izango da matxinada. ■



Agroekologia eta autogestioa

Beizamako paraje ederretan dago Uztaro kooperatibaren erdigunea. Gipuzkoan barazki otarrak banatzen aitzindari, ia hamar urtez aritu da autogestioaren eta agroekologiaren bidez inguruko familiak elikatzen. Barazki eta diru trukean oinarritutako kontsumo taldea izateaz gain, eurena “gizarte eta ekonomia proiektua” dela diote kooperatibako kideek.

| LIDE HERNANDO |

KOOPERATIBAK inguruko bost herri hartzen ditu, batzarrak egiteko hiru taldetan banatuak: Azkoitia-Zestoa, Zarautz eta Lasarte-Villabona. Talde bakoitzak hilean behin batzarra egin behar du, proposamenak edota arazoak eztabaidatzeko eta hileko kuota ordaintzeko. Horrez gain, kooperatiba osoaren batzarra ere egiten da, hilero, talde bakoitzeko ordezkariekin.

Besteak beste, barazki-jasotzeak ezberdintzen du Uztaro, gainontzeko kontsumo taldeetatik, bazkideek eurek zuzenean hartzen dituztelako jakiak lurretik. Astero, hiru herri-taldeetako bat arduratzen da Beizamara joan eta barazkiak jasotzeaz. “Hasieran, proiektua sortu genuen bi baserrietako kideak arduratzen ginen barazkiak jaso eta otarrak banatzeaz, baina lan handiegia zen”, dio Itziar Arconadak, kooperatibaren sortzaileak. “Kooperatibako kideak gehiago inplikatu zitezela eskatu genuen orduan, eta denborarekin, baita baratzeetara egindako bisitei esker ere, ordura arte kontsumitzaile rola zutenen konpromisoa handitu egin da”.

Baserritarren eta kontsumitzaileen arteko harreman bertikala apurto eta kooperazioan oinarritutako erlazio horizontala ezartzea lortu dute *Uztarotarrek*. Agian horregatik, ez dute asmorik euren proiektua tamainaz zabal dadin. “Hasieratik muga 50 otarretan jarri genuen, eta jada topera iritsi gara”, dio Aina Sarasketa kooperatibako kideak. “Autogestioan oinarritzeak prekarietatean funtzionatzeraz darama, eta 50 otarrekin mugatuta gaude bai lur eremuarengatik, baita lan kantidadarengatik ere”. “Gure helburua, gure kooperatiba zabaldu ordez, kooperatiba txikien arteko sarea osatzea izango litzateke”, gehitu du Arconadak.

Uztaroren eredu ekonomikoak ez du soberrakinik sortzen. Kideek hilero kuota finkoa ordaintzen dute, uzta asko egon edo ez; beraz, otarren tamaina ezberdina izan ohi da



Uztarok Beizaman dituen baratzeetako bat. Atzean, baserria.

aldi. “Barazki gainezka egon izan garetan, guri falta zaizkigun elikagaiak dituzten taldeekin trukatu ohi ditugu”, azaldu du Arconadak.

Autogestio integralerako bidean, Uztaron hainbat komisio sortu dituzte: hazien komisioarekin, landatze prozesuan kanpo-eragileekiko menpekotasuna ezabatu nahi dute; diru estraren komisioarekin, bestalde, jaialdiak antolatu ohi dituzte finantzazioa lortu asmoz. Badute fruta-arbolen komisio bat ere.

Agroekologiarantz

“Barazki otarrak erostea moda bihurtu da –aipatu du Arconadak–. Enpresa multinazionalak mezu hori jaso dute, eta janari ekologikoa duten otarrak saltzen hasi dira. Ekologismoak elikagaiak kimikorik gabe ekoiztu direla esan nahi du, baina gure proiektuarekin agroekologia bultzatu nahi dugu: kimikorik gabea izateaz gain, tokian tokiko eta garaian garaiko janaria kontsumitzera bultzatu nahi dugu jendea, eta ahal bada, kapitalismotik at dauden egitura autogestionatuen bidez”. ■



URRUÑA

AZAROAK 24

Sortuko dira Besteak

Alex SARDUI (GATIBU)
Mikel URDANGARIN,
Mixel DUCAU, PETTI

Olatz PRAT
Estitxu PINATXO
Pier Paul BERZAITZ.

URRUÑAKO POLIKIROLDEGIAN

16:30 etan

TXALAPARTARIAK - IKASTOLETAKO HAURRAK

SARTZEA: AINTZINETIK 12€/BERTAN 15€

URRUÑako ikastola eta ZIBURUko Piarres Larzabal kolegioaren alde
TALOAK, OSTATUA ETA KUXKUXTU TXARANGA

Laguntzaileak:

antza
komunikazio grafikoa

argia

**ASM KULTUR
PROMOTORA**
619421153



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**

♦
EHUKO
IRAKASLEA,
EPAILEA

Gatazkak, gaurkotasuna eta auzitegiak

NAHIKO ARGI bazegoen ere, gure herrian ez dago gatazka bakarra, gatazka asko baizik. Gatazka zabalak eta jende askorengan eragin zuzena dutenak. Gaur, ez dut uste gatazketatik libre herritar bakar bat ere egongo denik.

Zer gatazkak dira hauek? Bada, asko, baina azkenekoak –eta, zoritxarrez, luze iraungo dutenak–, besteak beste, hauek: delako *Parot doktrinaren* porrot judiziala; Hitzarmen kolektiboen ultra-aktibitatearen mugaren ondorioena; Fagor Elektrotresnak Kooperatibaren krisia.

Hirurak daude egunero hedabideetan eta hirurak erabakiko dira, partzialki, sikiera, auzitegietan. Eta zergatik hau? Ona al da hau? Edo txarra? Edo ez ona, ezta txarra ere. Agian, komenigarria. Edo guztiz kaltegarria.

Udazken honetako bigarren gatazka potoloa iragarrita zegoen. Orain urte eta erdi jakin genuen Hitzarmen kolektiboen ultra-aktibitatea mugatzen zela. Urtebetekoa izango zela behin Hitzarmena salatuta zegoenetik, eta beraz, hitzarmen askok beren indarra galduko zutela aurtengo San Fermin egunean

Hori dena izan daiteke, bai. Gatazka bakoitzaren izaeraren eta bilakaeraren araberak. Batzuetan, justiziak berak sortutako gatazkak dira: hauxe bera gertatu da *Parot doktrinarekin*; auzitegiek asmatutako tesi batek sortu zuen izugarritzko eztabaida juridikoa, bi arrazoiengatik: alde batetik, bultzada politiko bati emandako erantzun judiziala zelako; eta bestetik, zuzenbidea muturreraino bihurritu zutelako hainbat pertsonen eskubideak –giza eskubideak eta konstituzionalak– urratuz. Auzitegi batek korapilatu zuen gai hau eta besteek ez zuten zuzendu –hau bereziki larria izanik Konstituzio Auzitegiaren kasuan–. Eta beste auzitegi batek, Espainiako Estatuaren eskutik urrun dagoenak, ezabatu behar izan du doktrina lotsagarri hori.

Orain, Auzitegi Nazionalak dauka aukera ezin hobea irizpide arruntak eta ez salbuespenezkoak jarraitzeko: ondo hasi zen Inés del Río eta Juan Manuel Píriz aske utzi zituztenean; espero dezagun bide horretatik jarraitzea eta doktrina horren aplikazioagatik oraindik espetxeratuta dauden pertsona guztiak berehala askatzea eta ez luzatzea oinarritzko eskubideen urraketa beste bultzada politiko bati erantzunez.

Udazken honetako bigarren gatazka potoloa iragarrita zegoen. Orain urte eta erdi jakin genuen Hitzarmen kolektiboen ultra-aktibitatea mugatzen zela. Urtebetekoa izango zela behin Hitzarmena salatuta zegoenetik, eta beraz, hitzarmen askok beren indarra galduko zutela aurtengo San Fermin egunean. Horren ondorioz, enpresaburuak eta euren elkarrekin lan baldintzak aldatzen hasi dira kasu askotan eta, nola ez, sindikatuek gatazka hau auzitegira eraman dute. Kasu honetan, auzitegien lana derrigorrezkoa da, legeak sortu duen arazoa konpontzeko eta erabakitzeko zer lan baldintzak aplikatuko diren arlo eta enpresa bakoitzean. Hala ere, gatazka hau sortu da, hain zuzen ere, legeak ez duelako erabat ixten edo amaitzen erreforma eta “lan zikina” beste batzuei utzi dielako, hau da, auzitegiei. Bada, dagoeneko dauden auziei erantzungo zaie eta laster, oso laster, jakingo da zein den justiziaren erantzuna eta onargarria den ala ez langileon lan baldintzak atzeraka egitea era horretan.

Azkenik, gatazka sozial berria sortu zaigu: Fagor Elektrotresnak Kooperatibarena. Kasu honetan hainbat gai auzitegietan erabakiko da –ezin da esan konponduko denik–, baina ez guztiak. Zeren eta lanerako gai sakon batzuk gelditzen zaizkigu: kooperatiben eredia birpentsatu behar den ala ez, edota noraino heldu behar duen, nola zabaldu, nola erantzun kooperatiben talde barruan, lan hau soziala delarik eta ez judiziala, noski; pobrezia hedatzen ari zaigula nonahi, gero eta jende gehiago harrapatuz –gatazka hau ere gizarteari dagokiolarik–. ■





GARAi bATEAN "eroriak jaingoaren eta espainiaren alde" zIREN ... bai eta "aberriko, martiriak" ere. ORAIN BERRIZ "BIKTIMAK" DIRA ...

BALIA NEZAKE GURE NAGUSITASUNA, ETSAIARI NEGOZIAZIOA ESKEINTZEKO. BAINA EZ DUT NAHI: NIK GARAITU EGIN NAHI DUT, ENE BORONDATEA INPOSATZEKO, ETA BIRRINTZEKO. LABURBILDUZ: EZ AMORE-EMATE, EZ ITUN, EZ GARAI PEN ABAILGARRI ETA SEKULARKOA EZ DEN DEUSIK.

emilio mola vidal generala . 1936

espainiako gobernuak ikertzen ari da elkarte konstituitzea:

TERRORISMOAREN BIKTIMEN ELKARTEAREN BIKTIMEN ELKARTEA

BIGUNAK!

SALDUAK!!!

DEMOKRATAK!!!





JOSU SANTESTEBAN

Jon Alonso

ITZULTZAILEA ♦

Alternatiba lausoa

DILETANTE honen oso noizean behineko kolaborazio txikia, gaia ere txikia –erlatiboki– duena: urriaren 25ean, Nafarroako Parlamentuak atzera bota du I-Eren (Izquierda-Ezkerra) mozio bat. Mozioan eskatzen zen kontzertaziorik ez egitea ikasleak generoaren arabera bereizten dituzten eskolekin. I-Ek, Aralarrek eta Bilduk aldeztu zuten mozioa. UPNk eta PPNk, uste izatekoa zen bezala, aurkako botoa eman zuten. PSN eta Geroa Bai abstenitu egin ziren.

Josulagunak bezalakoek ere neskak eta mutilak elkarrekin hezten dituzten garai hauetan, edonork imajina dezake zer-nolako ideologia edukiko duten neskak neskekin eta mutilak mutilekin nahi dituztenek. *Tea party* forala. Ideologia hori bera daukate Geroa Baik eta PSNk? Ideologia hori daukate Uxue Barkosek, Patxi Leuzak, Manu Ayerdik, Juan José Lizarbek?

Jakina, abstenitzeko eman zuten arrazoia ez zen ideologikoa izan, juridikoa baizik: legeak atzera-eraginik edukitzea saihestu beharra.

Hau da, Yolanda Barcinaren gobernuaren alternatiba izan nahi omen duten alderdiak ez dira gauza

izan berez hain konfliktiboa izan behar ez zen gai batean ados jartzeko. Zer gertatuko da gai gatazkatsuak –AHT demagun, eta beste hainbat–, ukitzean? Edo, Barcinak legealdia beteko duela etsita, ditzosozko alternatiba hori egiteko lidergoa eskuratzeko lehia da benetan jokatzen dena? Zer-nolako alternatiba, baina? Bildu baztertzen duena? Zer botorekin, orduan? Arrazoi du UPNko Carlos

García Adanerok, alternatiba gutxiesten duenean, publikoki orain gutxi egin duen bezala.

Badirudi PSNren eta eskuin abertzalearen (zer gutxi erabiltzen dugun “eskuin abertzalea” espresioa, ezta?) kezka nagusia probintziako indar faktikoei –OPUSi eta abarrei– mezu lasai-garria bidaltzea dela: “Lasai egon zaitezke, serioak gara, Diputazioa iritsiz gero ez dugu ezer hankaz gora jarriko”.

Eta horrekin batera, azpiko mezu gisa-edo, gizarteari helaraz-

Barcinaren gobernuaren alternatiba izan nahi omen duten alderdiak ez dira gauza izan berez hain konfliktiboa izan behar ez zen gai batean ados jartzeko

ten zaiona da, aldarrikapenak aldarrikapen, alternatiba gordin-gordin dagoela; edo, are, egiazko edozein aldaketa ezinezkoa dela. Salbu eta, poltronak beteko dituzten ipurdiena, noski. ■



DANI BLANCO



Amets Arzallus



BERTSOLARIA

Zor etikoa

EKONOMIA FIKZIOA modan dago, eta politika fikzioa ere boladako bihurtzen ari da, bereziki bere baloreen merkatua, adibidez etika espainola.

Ekonomia fikzioa zer izan zitekeen Bolivian ikasi nuen, kanpo zorrarena esplikatu zidatenean. Boliviako Gobernuak prestatu zioten dirua halako lau itzulia omen zien lobby europarrei, eta hala ere sekula baino gehiago zor omen zuen, tartean interes tasak.

Interes traza berdina du zoru etikoa asmatu zuenak. Bide batez esanda, aski metafora txarra, ez ote litzateke hobea zoru horri u bat kentzea? Organo berri

bat azaldu baita hemen, EBZ, Frankfurtuko haren antzekoa, baloreen merkatua bere interesen arabera darabilena, eta guk etikarekin zor handi bat dugula esan du, eta bera hartzekoduntzat autoizendatu, bera baita EBZ, Etikaren Banku Zentrala. Eta guk delinkuente aurpegia jarri eta ordaintzeari ekin diogu.

Baina nago Boliviari gertatu zitzaiona gertatuko ote zaigun, zorra lau bider ordaindu eta hala ere zorretan segi, banku zentral hori politika fikzioaren asmazioa baita, eta bereziki fikziozkoa haren etika. ■



HEMEROTEKA

Emakumeek ama izateko jendartean jasaten duten presioari buruz hausnartu du artikulugileak. Alejandra Agudok *El País* egunkarian argitaratutako *No soy madre porque no quiero / Ez naiz ama nahi ez dudalako* artikuluan inspiratua da.

Sistema honek ugaltzeko behar gaitu

Carmen Muñoz

◆ PIKARA MAGAZINE

SEME-ALABARIK ez izatea erabaki duten emakumeak zergatik jartzen diren etengabe zalan-tzan, galdetzen diot neure buruari. Esaldi sonatu ugari jasan behar izateaz gain, “erdi-emakumetzat” hartzen gaituzte sarritan. Amatasuna benetako emakume bihurtzen gaituen formula magikoa balitz bezala.

Niri, emakume zentzudun orori bezala, amatasunak hautu erabat librea behar duela iruditzen zait. Askotan ez da horrela, ordea.

Egoista izatea leporatzen zaigu eta isilarazten gaituzte asaldatuta, “ez zara ama eta beraz ezin duzu iritzirik eman” bezalakoak esanez, eztabaidan parte hartu nahi dugunean.

Politikaria ere ez naiz eta politikaz hitz egiten dut; sinestuna ere ez naiz, baina erlijioaz hitz egiten dut, eta ez naute horregatik aparte uzten.

Hitz-jario androzentriko hori amarrua besterik ez da nire aburuz. “Amatasuna eta hazkuntza naturala” bezalako diskurtsoek indartutako amarrua da gainera, “amatasunaren mistika” sor dezakeen jardun arriskutsua.

Nekatu naiz inguruan eta batik bat hedabideetan hainbat esamolde aditzeaz: “Ama izatea bizitzan gertatu zaidan gauzarik onena izan da edo amatasunaren esperientzia emakumeari gerta dakioken ederrena da”.

Errespetatzen dut baina emakume bakoitzak bere esperientziatziaz hitz egin beharko luke, subjektiboa objektibizatu nahi

izan gabe, balore unibertsal bihurtu gabe. Horrela, balore patriarkalak areagotu besterik ez da egiten.

Sistema honek ugaltzeko behar gaitu, eta horretarako, familia tradizionalaren gaineko diskurtsoa lantzearekin batera, familia, sexualitatea eta autonomia ulertzeko gainerako moduak ezkutatu eta gaitzesten ditu. Horratx beraz, “onak” izateko eta ez “arraroak”, haurrak ekarri behar dira mundura, baina lesbiana bikote batek izan nahi baditu, diren oztopo guztiak eta bost jarriko zaizkie.

Nekatu naiz inguruan eta batik bat hedabideetan hainbat esamolde aditzeaz: “Ama izatea bizitzan gertatu zaidan gauzarik onena izan da edo amatasunaren esperientzia emakumeari gerta dakioken ederrena da”

Hori gutxi ez, eta uste zabaldua da emakumeak haurrik ez izatea erabaki duenean, bikoterik ez izatea ere erabaki duela esatea, edota sexurik ez praktikatzea. Sozialki antzu bihurtzen gaituzte, funtsean betikoaz ari garela: familia tradizionala erreproduzitzeaz. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Pentsioei jarriak



DANI BLANCO

Iñaki Murua



Doinua: Espainian behera.

Lanik ezak liskarra eta sesioa biloben zaintzak berriz gora tentsioa! hipoteken zotina eta presioa gurasoen etxea zena pentsioa zenbaten salbazio baten pentsioa!

Sartuko zigutenik holako porrua ezinago antzutik darigun orrua zoroaren etikak non dauka zorua? geu gara bere bazka bere otordua; geuk irentsi beharra geure amorrual

Izan gara eskulan saiatu gartsua eman ahala hustuz gogo, grina, sua... orain gara ahodun errape antzua beharrezko ez garen jende behartsua eskela eta eskale arteko pultsua. ■



«Subjektibitate iraultzaileak ekoizten dituzten artelanak izan behar ditugu helburu»

Antonio Negriekin trilogia bat idatzi zuen: *Inperioa, Multitudea: gerra eta demokrazia inperioaren garaian eta Commonwealth-a*. 2011n hasitako plazen eta okupazioen zikloan parte hartu ostean *Adierazpena* panfletoa idatzi dute ostera. Baina Michael Hardt (1960, Washington) literatura teoriararia da. Berriki Iruñean egon da La Hormiga Atómica Liburuak-en eta Komunen Fundazioaren eskutik.

| HEDO I ETXARTE |

Zure filosofia eta politikako testuetan komuna edo denona denari buruz hitz egiten duzu sarri. Baina zer litzateke komuna dena literaturan, harreman komertzialaren paralelo argiaz harago? Zeharka erantzungo dut. Interesgarria litzateke multitudinearen literaturari buruz hitz egitea. Literatura herritarrari buruz pentsatuko nuke hasteko, Antonio Gramscik aipatzen duen nazional herrikoari buruz. Hark zioen Italiako literaturak ez zuela ahots nazional herrikoia bat garatua; Frantziak, aldiz, bazuela halakorik XVIII. eta XIX. mendeetako literaturan. Gramscirentzat garrantzitsua zen literaturak ez zuela jendea islatzen, jendea eraikitzen laguntzen zuela baizik. Horregatik zioen literaturak potentzial iraultzailea duela.

Beraz, oinarriztat hartuko bagenu literaturaz nazional herrikoia hipotesi gisa, has gitezke pentsatzen zertan izan daitekeen ezberdina multitudinearen literatura. Gaur ez genuke ekoizti beharko ahots nazional bateratu bat; ezta, bestalde, norbanakoen batuketa bat ere, singularidadeen sare bat baizik. Nola osatu talde bat, multiplizitateen sare bat, hori litzateke proposamen interesgarria. Akaso Gramsciri okerra irudituko litzaioke baina neure perspektibatik arrakasta literario bat litzateke. Multitudinearen literatura litzateke niretzat komunaren literatura. Bururatzen zaizu adibideren bat? Badira arau hauek betetzen dituzten testuak?

Baditut baina ez dira gaur egungoak: Manhattan Transfer edo Berlin Alexanderplatz.

Bai. Horiek neuzkan neuk ere buruan.

Baina denak dira orain hamarkada batzuk sortutako lanak. Arazoa da?

Ez, zeren denok partekatzen ditugu testu horiek.

Uste duzu pauso berri bat egongo dela literaturan, politikan bezala, 2011n ireki den plazen zikloari lotua? Lagun gaitzake 1789-1989 zikloan sortutako herri literaturak, erabilgarria izan daiteke politikoki egun?

Subjektibitate berriak sortzeko gaitasunak asko erakarri izan nau. Horrek emaitza politikoak izan ditzake. Artearen rol politikoa, zentzu zabalean, subjektibitatearen mailan lan-tzen da.

Halere, ez daukat egungo literaturako adibiderik, nahiz eta horrek ez duen esan nahi ekoizten ari ez denik. Ekoizpena hain da handia ezin dugula dena jarraitu, tamalez. Baina uste dut ekonomian gero eta garrantzitsua goa dela subjektibitateen sorkuntza, salgaiekin alderatuta adibidez. Beraz, artearen rola, eta bere sorkuntzaren indarra, gero eta lotua goa egongo dira.

Edozein kasutan, ez naiz ari esloganez beteriko arteari buruz, borroka islatzen dituzten irudiei buruz. Subjektibitate iraultzaileak ekoizten dituzten artelanak izan behar ditugu helburu. Geuri oraingoz XX. mende erdialdeko adibideak bururatzen zaizkigu: Brecht, erresistentziaren estetika, konzientzia politizatua duen artea.



Zein litzateke idazlearentzat ekoizpenerako leku egokia? Zein posizio izan dezake?

Horri erantzuteko ekoizpen ekonomikoak arte ekoizpeneko elementuak zenbateraino irentsi dituen aztertzea komeni da. Paolo Virnori irakurri dizkiot honen inguruko gogoetak, bereziki hizkuntzari buruz jardutean. Ekoizpen ekonomikoa gero eta berritsuagoa bihurtu dela dio. Praktika linguistikoak eta performatiboak zerbitzuetara eta ekoizpen ez-materiale-tara bideratu dituela. Eta uste dut horrek adieraz dezakeela zenbaterainoko indarra izan dezakeen sortzailearen narrazioak. Baina aldi berean arriskuak daude. Adibidez, sor daitezke oso azkar irensten diren forma artistikoak. Akaso gaur egun inoiz baino azkarrago bihur daitezke forma narratibo bat salgarri.

Zentzu horretan, kalitatea bera izan daiteke ikuspuntu politiko bat? Edo aurreiritzi soila da.

XX. mende hasierako Europako idazle modernista asko oso kezkatuta zeuden iragarkiek izan zuten zentraltasunagatik. Iragarrien bidez hizkuntza salgai hutsa zen. Eta zenbait autore modernistak artea eta salgaien mundua bereizteko ahalegina egin zuten. Zenbat du iragarrien hizkeratik James Joycen *Ulysses*-ek? Eta helburua hain justu, salgaien mundutik aldentzea izan zen.

Uste duzu dibortzioa gerta daitekeela artearen eta artea behar dezaketenen artean? Forma

“Gaur ez genuke ekoitzi beharko ahots nazional bateratu bat literaturan; ezta, bestalde, norbanakoen batuketa bat ere, singularidadeen sare bat baizik. Nola osatu talde bat, multiplizitateen sare bat, hori litzateke proposamen interesgarria”.

herrikoien eta elitisten artean Adornok berezitu litzuzkeen zentzuan?

Ez dut ikuspuntu apokaliptiko bat. Akaso neure akatsetarik bat munduaren ikuspuntu apokaliptikoak errefusatzea delako. Gainera uste dut azken urteotako kanpalekuetako eta plazetako hizkuntza estetikoki oso bete dagoela. Maila gorena Gezi parkean gertatu da. Etengabeko esloganak egon dira, txistek, erregimenari aurre egin zaio funtsean baliabide linguistikoak erabilia. %99aren aldeko leloak aise gainditu dira. %99aren leloak gainera, oso elementu artistiko gutxi ditu, kar, kar. Gezin asko zabaldu zen Erdoganek haien aurka esan zuen iraina. Harrapakariak zirela esan zien, eta azkar batean hasi ziren hitz-jokoak egiten. Gezi parkean ere LGTB kolektiboek ere hitz-jokoak erabili zituzten haien errebindikazioak helarazteko. Oso estetikoak ziren. Tamalez, orain minutu batzuk ezin nuen pentsatu egungo idazle batean, egungo egoera probestu eta ekoizten ariko litzatekeen artista horretan. Baina akaso, aktibisten artean aurki ditzakegu hizkuntza asma-zioak egiteko pertsona egokiak, egungo Brechtak edo Joyceak.

Marxek aipatzen zituen bai merkatuko salgaien hizkuntza bizia, baita estatuaren hildako hizkuntza ere. Egungo aktibistek modu askean jolas dezakete biekin. Han aurki ditzakegu egungo alternatibak. ■



Hamar urtez irakurleak trebatzen

Literatura Eskolak hamar urte daramatza irakurleak trebatzen eta literatura zaleen jakin-mina asetzen. Hasierako helburuei eutsiz baina erronka eta antolatzaile talde berriarekin ekin diote zortzi saio izango dituen aurtengo ikasturteari.

| LANDER ARRETxea |

“IRAKURTZEN ikasi nahi genuen, galbahe bat izan, eta jakin, idazle batek zergatik idazten duen lan bat, zertarako eta noiz idazten duen, zein testuinguru historikotan, zerk bultzatuta; inoren zain egon gabe eta inork ezer esan gabe nahi genuen, zer irakurri ere geuk erabakita”.

Gotzon Barandiaranen hitzok azaltzen dute Literatura Eskolaren abiapuntua. 2003an sortu zuten Larrabetzuko Bihotz Bakartien Klubeko kideek, irakurlearen matxinada aldarrikatzeko eta “merkatuek inposatutako literatura hutsalari” muzin egineko.

Hamar urte geroago, hasierako helburuek eta ikuspegiak bere horretan diraute. Haatik, indarra batzeka ahalegina egin du aurtengoa Literatura Eskolak, eta hainbat kultur eragilek hartu dute antolakuntzaren ardura: Euskal Idazleen Elkarteak, Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarteak, 111 Akademiak, Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak, UEUKo



Literatura sailak, Sareinakek eta Eleazarrik, hain zuzen.

Antolatzaile talde berriari bildu zaizkion kideetarik bi Iratxe Retolaza eta Amaia Serrano dira. Biek ala biek uste dute hezkuntza arautuan literaturen transmisioak ez duela bere funtzioa betetzen. “Duela hamar urte ez zuen betetzen, eta gaur egun are gutxiago. Derrigorrezko hezkuntzan eskola orduak gutxitu egin dira, eta unibertitatean ere murriztu egin da literaturari eskainitako espazioa”, dio Serranok.

Gabezia horri erantzuteko, parte-hartzean oinarritutako lau orduko saioak antolatzen ditu Literatura Eskolak, hilean behin, larunbatez. Elitismorik gabeko eskola dela uste du Retolazak: “Hizlariak gaia aurkezten dute, baina denon ekarpenekin osatzen dugu saioa. Badu zerbait tailerretik ere”.

Gazteak erakartzeko saiakera

Retolazaren arabera, herri eta adin askotako literatura zaleak elkartzeko aukera paregabea eskaintzen du Literatura Eskolak. “Hurbiltzen direnen artean, batzuk idazleak dira edo idazle izan nahi dute, eta beste batzuk literatura zaleak dira besterik gabe. Askotariko jendea dago”. Halere, gazte gehiago erakartzea dute aurtengo erronka. Komunikazioa indartzeko ahalegina ere egingo dute, Eleazarrik kideek plazaratuko dituzten kroniken bidez.

Urriaren 19an Larrabetzun egin zen lehenengo saioan Ander Lipusaren antzerkigintza izan zuten aztergai, Jaime Valverde ikerlariaren hitzaldia oinarri hartuta. Zarauzko Sanzenea kultur etxean egingo den hurrengo saioan ostera, Maialen Marinek Txinako literatura garaikidea izan du hizpide. Maiatzera bitarte, beste sei saio eskainiko dituzte Euskal Herriko beste horrenbeste txokotan. ■



Datozen saioak

ABENDUAK 14. *Amaia Lasaren alfabeto berria.* Josune Muñoz eta Amaia Lasa. Bilboko Alhondegian.

URTARRILAK 18. *Ramon Sarrionandiaren itxarpena.* Mamen Marin. Mikelazulon (Oretea).

OTSAILAK 22. *Joseba Sarrionandiaren itxarpena da bide bakarra.* Eider Rodriguez. Xaia ostatuan (Pausu, Urruña).

MARTXOAK 15. *Harrikoa eta literatura.* Inma Errea eta Irati Jimenez. Euskaldunon Biltokian (Iruñea).

APIRILAK 12. *Abangoardiak euskal literaturan.* Iñigo Aranbarri. Durangoko udal-liburutegian.

MAIATZAK 10. *Euskararen aurrerakoa.* Gerardo Markuleta. Gasteizko El Pilar gizarte-etxean.

GAU- BERANDUAN

*Eraldatu egiten dira paisajeak
gau-beranduan. Eder zena
beldurgarri bihurtzen da eta
beldurgarri zena eder.*

PETTI

HARKAITZ CANO

JOXAN GOIKOETXEA

Azaroak

17

19:00etan

Antzoki Zaharra
Donostia

Salmenta: leihatila eta
www.kutxasarrerak.net



A&M KULTUR
PROMOTORA
619421153

 **argia**



Ekinaren ekinez, kultur eskaintza iraunkorra Arrasaten

2010ean kultura eskaintza zabalagoa lortzeko helburuz, Kooltur Ekintza taldea osatu zuten Arrasateko zenbait musika zalek. Talde honen ekinari esker, urritik maiatzera bitartean ostegunero hitzordu finkoa du kulturak.

| IKER BARANDIARAN |

KOOLTUR EKINTZA taldeak Arrasateko kultura eskaintza aberastu nahi luke, eta ekintza nagusi gisa Kooltur Ostegunak izeneko ekimena jarri zuen martxan. Urritik maiatzera bitartean –biak barne– emanaldiak antolatzen dituzte ostegunero, eskema berari jarraituta beti ere: Arrasateko Gaztetxean izaten dira, 22:00etan hasten dira puntuan, 23:30etan bukatzeko; sarrera 5 eurokoa izaten da; talde bakarra aritzen da beti, sarreratik jasotako dirua eskuratzen du.

“Osteguna lan-eguna izanik, talde bakarraren aldeko apustua egin genuen eta beti ere puntualitateari eutsiz”, azaldu du Kooltur Ekintza taldeko Haritz Zubiatek. Hala, Arrasateko eta beste herrietako musika zaleek badakite asteroko hitzordua zein den. “Formatu oso eroso da, jendeak gustuko du, bai ikusleek baita parte hartzen duten taldeek ere”, diosku Iago Casconek –Kooltur Ekintza taldeko kidea berau ere–.

Abiapuntua Gaztetxean

Koolturekoen aburuz, kontzertuak eta bestelako emanaldiak egiteko primerako baldintzak betetzen zituen herriko gaztetxeak, bat ezik: soinu ekiporik ez zegoela. Hain zuzen ere, Gaztetxeak agertoki handia du, 500 lagun sartzen dira, akustika eta ikusmen-puntu ona du, aldage-lak, dutxak, sukaldea, lo egiteko lekua... Soinu ekipamenduaren arazo saihesteko, herri bertako soinu enpresa batekin jarri ziren harremanetan, eta hango ardura-dunek materiala zorpean eman

zieten. “Kontzertuetan tabernan ateratako diruaz poliki-poliki soinu ekipoa ordaintzeko konpromisoa hartu genuen eta ia bete dugu”, azaldu du Zubiatek; “eta hori estali ostean, argietan inbertituko dugu”, gaineratu du.

Gazte asanbladak oso ondo hartu zuen asmoa eta, gainera, gaztetxea beste herritar batzuei zabaltzeko ere balio izan du ekimen honek. Kooltur Ekintzakoek, hala ere, argi dute haien eskaintzak ez duela zertan Gaztetxera mugaturik, eta badute asmoa hortik kanpo ere bestelako ekitaldiak antolatzeko.

Musika eta bestelakoak

Ekimen honen antolatzaileak musika zaleak direnez, kontzertuak dira Kooltur Ostegunen

eskaintzaren oinarria, baina tarte-antzezlanei eta beste diziplina batzuei ere egin diete lekua. Ander Lipusen *Publikoari Gorroto* izan da azken adibidea.

Musikari dagokionez, mota eta jatorri askotako taldeak pasa dira bertatik; ia 40 talde kurtso bakoitzeko: horietako batzuk oso ezagunak (Zea Mays, Atom Rhumba, Lisabö, Gari, Esne Beltza, Anari, Kerobia, Capsula, Mikel Urdangarin...); atzerrikoak ere gero eta gehiago (Japoniako Who The Bitch, Eskandinabiako Krissy Matthews, AEBetako The Hangmen...). Musika estilo ugari ekarri dituzte, horretan ere indar handia jartzen baitute arduradunek. Horren erakusle argia da orain arte bluesa, punk-rocka, popa, jazza, funkya, hardcorea, latina, post-rocka, garagea, folka, rock-and-rolla, etnikoa eta

KOOLTUR OSTEGUNAK / ARRASATEKO GAZTETXEAN

AZAROAK 2013

THE HANGMEN
(AEB) AZAROAK 07

SANTA RITA
(CATALUNYA) AZAROAK 14

SONIC ANGELS
(FRANTZIA) AZAROAK 21

TOKYO SEX DESTRUCTION
(CATALUNYA) AZAROAK 28

22:00 5€

DATOZENAK: WHO THE BITCH, THE ALLIGHTERS, GLAIUKOMA

LANJANTARRA: musika

www.kooltur.com • www.ostegunak.com • www.letxe.com



gehiago erakartzen dute. Hala, ostegun batzuetako batez beste adina ez da Gaztetxe baten ohikoa izaten, eta hori oso positiboa da”.

Adinez eta belaunaldiez ari garenez, ez dago soberan aipatzea Kooltur Ekintza taldea osatzen dutenen artean ere hainbat belaunaldi eta diziplinatako jendea aurki dezakegula: musika programatzen aritutakoak, soinu teknikariak, diseinatzailerak, tabernariak, sare sozialetan adituak... eta gehientsuenak musutruk lanean aritutakoak. Horra hor, adibidez, soinu ekipoa lortu eta Kooltur Ostegunen programa hastearekin bat, soinu aditua den kideetako batek beste hainbat partaideri

bestelakoak entzuteko aukera izan dela gaztetxean, eta horretan jarraitzen dutela.

Kooltur Ekintza taldeko kideak.

emanaldien sonorizazioari buruzko trebakuntza eman izana.

Ostegunetako eskaintza zabal horri esker, bada Arrasaten bertan Gaztetxea ezagutu duenik. Zubiategi azaldu digunez, “Gaztetxeak adin eta estilo jakin batzuekin lotzen ditu jende talde batek, baina Kooltur Ostegunek aurreiritzi asko apurtu dituzte eta jende

Zarata handirik atera gabe, lana fin eginez, gero eta talde (eta ikusle) gehiago batuz doaz ekimenera. Borondate jarrita eta lan eginda, gauza ugari lor daitekeela erakutsi du Arrasateko talde honek. ■



Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013

MURGIA

Palatu kirolegia
Azaroak 17, 17:30ean

FINALAURREKOAK

OIARTZUN

Elorsoro kirolegia
Azaroak 16, 17:30ean

Citor Mendizuze

Benat Gaztelumendi

Fredo Paia

Justo Colina

Unai Egirre

Xabier Silveira

Egin Laburu

Citor Jarriegi

Claia Marten

Benat Lizaso

Ion Maia

Odei Barroso

ANTOLATZAILEA

LAGUNTZAILEA

www.bertsozale.com

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

Finalurreko usaina

Euriak elkarri pega-pega eginda jarri gintuen frontoiaren sarrerako aterpean. Larunbat arratsaldea “jai alai” bilakatzeko asmoz joan ginen Gernikara bertsozaleak eta baita sei bertsolariak ere. Hitzeko pilotakadak, ideia bonbardaketak eta umore pintzeladak ez ziren falta izan... Nabari da: hasi dira finalurrekoak.

| NEREA IBARZABAL |

LAN OSO TXUKUNAK izan ziren orokorrean, ez zen arreta galtzeko aukerarik izan eta barre ere egin genuen gogotik (eta ez zortziko txikiko lanetan bakarrik). Baina niri bi galdera sortu eta sartu zitzaizkidan buruan egunaren amaieran, oraindik ere erantzunik ez dutenak.

“Denbora daramazu zure eskuei begira”, kartzelako gaia. Amets Arzallusek Bernardo Mandalunizi begira jarraitzen zuen, gaiaren bigarren zatiaren zain edo, baina hortxe isildu zen gai-jartzailea. Isiltasuna doinu berri batekin hautsi zuen laster; ez dakit bere ahotsagatik, zerbiltzan hitzengatik edo lehen bertsoaren misterioaren ondorioz izan zen, baina inoizko goxoena iruditu zitzaidan. Bere emaztea jo duen gizonaren ahotik kantatu zuen Ametsek, eta paper horretatik ia ezinezkoa den xamurtasuna transmititu zigun entzuleoi. Nola? ba nork daki, agian “eskutxo”, “luzetxo” edo “funtziotxo” bezalako hitzek gertutasuna adierazten dute eta ankerkeriatik urruntzen dute aukeratutako pertsonaia; beharbada eskuan “barkatu” idazten imajinatzea irudi zirrargarria izan zen; edo agian, besterik gabe, bertso ezin hobeak ziren.

“Ea noraino iristen garen ‘Ametsei’ segika” bota zuen Jon Martinek agurrean, eta egia da. Denok gabiltza Amets harrapatu ezinda eta Ametsek harrapatuta aldi berean... bere hitzak bagaramatza, berak nahi duen bideetatik, berak nahi duen tokira. Lehendik ere ibili izan dut galdera hau

2013ko azaroaren 9an, Gernikan. Bertsolariak: Amets Arzallus (717); Jokin Uranga (657,5); Jone Uria (653); Jon Martin (640,5); Julio Soto (639,5); Nerea Elustondo (633,5).

barruan bueltaka, baina geroz eta zailagoa egiten zait isilaraztea: nola izan daiteke horren ona?

Bigarren sentsazio orokor bat ere izan zen Gernikako frontoian. Saioa hasi zen unetik, “Nerea Elustondo primeran dabil” bezalako esaldiak entzun/esan genituen. Zortziko handian zerbitzu minimoetako kalegarbitzaile izan zen Jone Uriarekin batera eta eskubideez aritzean, “besteak hasten diren lekuan/ bukatzen dira gureak” bezalako puntuak utzi zituen. Iraultzatxo egin eta kafe bat hartzera joateko proposatu

zuenean ere gogoz jotako txaloez bete zen Jai Alai.

Lagunei buruzko puntu erantzunean ere borobildu egin zuen bertsoa eta sei puntuko lanean asko gustatu zitzaidan. Ikastolako zuzendari izatea egokitu zitzaion eta Jon Martini azalpenak eskatu beharra zaukan, saskibaloiko entrenamenduetan lehiakortasuna gehiegi sustatzeagatik. Umorea egiten daki Nereak, baina serio jarri eta arrazoirik potoloenak botatzeko gai da: “hau eskolako patioa da/ ta ez NBA” bota zion; “.../ jarrita sasoi betean/NBAr irits daitezke/ egunen batean” Martinek erantzun. “Ta zer egingo ote diezu/ lortzen ez badute?” berak atzetik. Uneoro sinesgarri jardun zuen, bertso bakoitza oso berea zen, oso Nerea. Horregatik uste dut oso denona izan zela harridura seigarren egin zuenean. Hortxe, beraz, bigarren galdera airean.

Baina euriak busti egiten duela dakigun moduan, frontoiko sarrerara hurbiltzen garen momentutik dakigu Txapelketak sorpresak dakartzala. Ikusiko dugu ea zer giro dagoen datozen finalurrekoetako aterpeetan... azken finean, puntuak puntu, elkarri pega-pega eginda egoteak balio du gehien.

A, eta zorionak zuri, zorionak zuri, zorionak Amets, zorionak beti! ■



Sailkapen nagusia

24tik 18 pasako dira finalurrekoetako bigarren itzulira

1. Igor Elortza: 722
2. Amets Arzallus: 717
3. Iñigo Mantzizidor *Mantxi*: 667,5
4. Jokin Uranga: 657,5
5. Jone Uria: 653
6. Etxahun Lekue: 649
7. Unai Iturriaga: 649
8. Jon Martin: 640,5
9. Julio Soto: 639,5
10. Jexux Mari Irazu: 638,5
11. Amaia Agirre: 638
12. Nerea Elustondo: 633,5

2013ko azaroaren 8an, Tolosan. Bertsolariak: Igor Elortza (722); Iñigo Mantzizidor *Mantxi* (667,5); Unai Iturriaga (649); Etxahun Lekue (649); Jexux Mari Irazu (638,5); Amaia Agirre (638).

Klik!

Usabal jendez gainezka. Gozoa da kantarako, bertsolaria bere lekua aurkitzeko tenorean jartzen du. Dena dela, guztia ez da lekua, momentuak ere badu garrantzia: eta hau finalurrekoa zen. Saioa hasi aurretik sartu nintzen barrura, eta oholtzaren alde batera aurkitu eserlekua. Plaza osoaren perspektiba aurrean, tentsioa nabarmena zen. Baina bertsolariak lan puntuagarriekin hasi ahala lasaitu zen giroa; sanotu, esango nuke.

| IÑAKI GURRUTXAGA |

GURE ALABAK, oherakoan, afizio latza du buru ondoan geratzen zaion argiarekin piztu-itzalian ibiltzeko. Tolosako saioan gozatu ederra hartuko zukeen.

Ofiziotako ariketan, interruptorea klik-klik. Bertso oso onak entzun genituen, baina ariketa osorik entzun gabe geratu ginela iruditzen zait. Oraintxe argia piztu, oraintxe itzali. Azpimarragarria zortziko handian Igor Elortzak egin zuen lana. Mantxik ez zion bidea gehiegi erraztu elkarrizketarako, nire iritziz, baina Igorrek putzu agorretik ura atertu zuen. Aurten txapelketan entzun dudana ofiziotako lanik onena urruti gabe izango zen.

Bestalde, parentesia irekiz, Unai



GARI GARAIALDE | BERTSOZALE ELKARTEA

Iturriagaren zortziko handiko lanak niri ere argia piztu zidan. Epai-irizpideetan 3.4 puntuak dio: Etena doinuaren arabera egin behar da. Batzuetan nahitaezkoa izango den bezala, zenbait doinutan ez da beharrezkoa izango. Unai eten asko utzi zituen hankaz gora. Epai-irizpideen arabera zilegi dena, porztierto. Baina nago, etenik behar ez duen doinua aukeratzen duenak erraztasun tekniko bat eskaintzen dionez bere buruari, hau ere baloratzen al dute epaileek? Alegia, abiapuntu diferentetatik hasten direla bertsolariak. Tira, beste klik bat eta gatozen saio-saioa.

Zortziko txikiko ariketan beste fenomeno bitxi bat. Etxahun Lekuek Igorrekin egindako ofizioan, azken honek aurretik Mantxirekin egindakoaren erreferentzia erabili zuen. Erabili eta nola. Gauza bera egin zuen Jexux Mari Irazuk Iturriagarekin, oso ondo baliatuta. Mantxik ere bai, Amaia Agirrerekin, baina ez

zuen bete-beteen asmatu. Badirudi, saioan erreferentziak sartzea baloratzen ari ote diren. Zortziko txikian erreferentzia-epidemiato bat bizi izan genuen. Ondo dago; baina, argi, gauza guztiak bere neurrian.

Puntu erantzunetan denetarik. Puntuak eurak, aurreko egunean Gerrikan baino hobeak, dena esanda.

Seiko motzean ere fin bertsolari guztiak. Mantxi eta Irazurena gustatu zitzaidan, aitona-biloben papertik errealismoz heldu baitzioten gaiari, errazagoak ziruditen potolokeriatan erori gabe.

Eta azkenik, kartzelan bakarka. Guztiak ere ondo. Gaiak zioen: "korridoreko argia itzalita lokartzeak beldurra ematen dizu". Atzo zenbaitek aurrera begirako pasilloa luzatu du majo, eta iluntasuna espero zuen tokian argia aurkitu. Besteren batzuk oraindik interruptorea non den bilaka jarraitu beharko dute. ■



EKIN
AUTOAK





Amunaga industrialdea, 4
48300 Gernika-Lumo
☎ 94 627 02 92 Faxe: 94 625 54 60
www.ekinautoak.com

Confecciones
TOTORICAGÜENA



Adolfo Urioste kalea, 3
48300 Gernika
☎ 94 625 11 86



Helduen Literatura

Damutzen ez direnak
Itxaso Araque Barriuso
Elkar, 2013

Ez damutzeko liburu bat

DAMUTZEN EZ DIRENAK du izena Itxaso Araque idazle gaztearen eleberririk. Liburua osatzen duten 248 orrialdeak arin eta plazerez irakurtzen dira, hainbat arrazoi tarteko. Hiru pertsonaia, hiru eszenatoki, hiru istorio eta hiru narratzaile.

Stuart, Andreas eta Naroa dira hemen biltzen diren hiru istorioen protagonistak. Hiru gazte, baliteke, 30 urte inguruko belaunaldiaren erakusle, Europako beste horrenbeste hiritan sakabanaturik: Berlin, Milan eta Londres. Kosmopolitismoa agerikoa denez gero, hiri handi masifikatuetan ematen diren problematikak ere ez dira falta: arrakasta eta handinahia-aren arriskuak, gizarte hierarkia gordina eta estatus sozialaren garrantzia, boterearen ustelkeria, indibidualismo bortitza, “benetazko” erlazioen zailtasuna.

Sistema, eta hein handi batean gure bizitza, gidatzen duten balore horiek guztiek nolabaiteko printzipio pertsonalen bazterketa dakartenean sortzen da barne eztabaida: bizitzan gustatzen ez zaizkigun gauza asko egin behar ditugu. *Ezin dugu beti gogoak agintzen diguna egin. Nabi edo ez, dirua behar dugu bizirauteko* (191. orr). Termino psikoanalitikoei hel- tzearren, ni-a eta beste ni-aren arteko tentsio hura iruditu zait protagonisten istorioak, bakoitza bere

adierazpen pertsonalean, elkartzen dituen eleberria- ren konstanteetarikoa bat.

Umetan nabi dugun guztia lor dezakegula esaten digu- te eta ametsak sortzera bultzatzen gaituzte (192. orr). Arrakastatsu izatera bultzatzen duen diskurtso baten menpe bizi gara eta, arrazoi asko eta desber- dinengatik, gure desioei entzungor egiteko ohitura geureganatzen dugu. Momentu batean, baina, *kon- turatu zara bidean utzi duzuna faltan botatzen duzula* (185. orr), eta aurrera egin ezinean sentitzen dira pertsonaia. Inflexio puntu horretan, iragana eta orainaren artean harrapatu-rik, gaztaroko ametsak berbideratu nahian aurkituko dira, orain arte egin- dakoaz damutze edo ez damutze puntu batean.

Irakurlea pertsonaien ibilbide horren lekuko bila- katzen da; beren beldurrak eta zalantzak kanpoko munduarekin eztabaidan ikusten ditugunean, gu ere partaide garen gizarte baten kontzientzia, beste behin, bereganatzen dugu.

Horra Itxaso Araque Barriusoren liburuari heltzeagatik ez damutzeko arrazoiak. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



Kontzeju Jatetxea


Eguneko menuak, Ospakizunak
Asteburuko menu bereziak, Plater konbinatuak

☎ 943 683 327 / 656 710 073 · Hirigunea, 1 · Elduain (Gipuzkoa)

CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERIK ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com



Gaua
Mikel Azpiroz
Mamusik, 2013

Gaueko isiltasunean entzuteko musika lasaia

UKAEZINA da *Gaua* diskoak duen konnotazio intimista. Pianoaren oihartzunak barnealdera garamatza, sentsazio eta pentsamendu artean kiribiltzera. Intentzio eta asmo horiek guztiak konposizioan ageri dira, batez ere: melodia goxak aurkeztu dizkigu, tempoarekin jolastu du, notek duten erresonantziak luzatu ditu eta isiluneek duten presentzia azpimarratu.

Egilearen erraietatik irteerako melodiak gauaren bakardadea eta isiltasuna izan dute lagun eta interpretaziorako egin duen aukera minimalistak intimitate hori bera bilazten dio entzuleari, egunaren bukaeran iluntasunean bildurik entzuteko gonbitea luzatzen baitigu.

Musika lasai honek momentua geldiarazteko deia egiten du, denboraren jarioak inoiz izan duen abiadurarik bortitzena moteltzeko oihu ozena. Erabilera anitzeko gailuei entxufatuta bizi garen garai hauean, hasperen eginez erlaxazio fasean erori eta geure buruarekin konektatzen lagunduko diguten abestiak sortu dituela esango nuke.

Sei urte zituela hasi zen pianoa jotzen Mikel Azpiroz (Donostia, 1971). Hasieran musika klasikoa izan zuen oinarri, baina umetatik erreferentzia izan ditu jazza eta bluesa. Azken urteotan Elkano Browning Cream taldearekin ibili da buru-belarri, baita Jabier Muguruzarekin ere. Formatu hauetan tarterik ez duten kantu pertsonalagoak zituen sortuak ordea, eta hauek disko batean biltzea erabaki zuen.

Tarragonako El Vendrelleko Pau Casals auditorio ederrean grabatu zuen diskoa, gauetz eta piano eder baten laguntzaz. Urteetan irentsitako estiloak



JOSE ATRXA

eta jotzeko erak modu homogeneo batean agertu dira hamar kantuetan, modu naturalean azaleratu zaizkio. Orain arteko ekoizpenik pertsonalena dela esan du, beregan ukitu terapeutikoa izan duena.


Abestiak entzuten zoazela aura misterioitsua sumatzen da, bakartia, baketsua. Pianoa da protagonista bakarra. Ez dago beste elementurik, ez testurik ez eta bestelako instrumenturik ere. Abestiak esanguratsuagoak egiteko ezinbesteko baldintza iruditu zitzaion bakarrik agertzea eta hausnarketa honek interpretaziorako askatasuna eman dio. Hau guztiaren adierazgarri nagusienetakoa da abestiaren garapenean geldotasuna edo bizkortasuna gogoaren baitan moldatzen joan dela.

Lan fina egin du Mikel Azpirozek. Delikatua, leuna eta iradokitzailea. Dudarik gabe, gustuko izango dute musika klasikoa zein garaikidea atsegin dutenek. Musika estilo hau entzuteko zaletasunik ez duen orok ere erraz entzun dezake, pianoaren soinua eta melodia gozoak samur sartzen baitira. ■

Olatz Korta



Hitz gezidunak

PERTSONALA- REN IZENA ARERIO	SAGUZARRA ...VICIOUS, PUNK KANTARIA	BARRE	 DANI BLANCO		HIGITU ADITZAREN ERROA ANDA	LUR-PUSKA BELARDUN ABENDU	DROGA GOGORRA PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA	
DUDARIK GABE ALDIZ					SENDU, IRMO LEKU HARTARA			
			TIK-... ERLOJUAREN HOTSA ZENTA		LAGUNAR- TEKO TRATAMENDU DESIRAK			
ANPEREA ERASORAKO TRESNA	NIREGANA MILA ZATI BERDINETA- KO BAKOITZA					DENBORA, SASOI ATZAZAL		
		BELDURREZ ESKAERA					LEKU ATZIZKIA EAKO HERRI- TARRAK	
SOLASBIDE EUNUKO ETXE BATEK HARTZEN DUEN LUR-EREMU				HAZKUNTZA PISU GUTXIKOA				
					ARGI HONDARTZA TXIKIA			HAUR TXIKI
EGIPTOKO JAINKOA HESTE- ARINGARRIA	OILLOAREN KANTUA ISRAELGO TRIBUA					NOREKIN ATZIZKIA TELEBISTA		
			IKATZA EGITEKO TXONDOR IZENA (LABURDURA)					
NAFARROA- KO HERRIA PERTSONAIA- REN ABIZENA				IRRISTAKOR BYTE				
						PORTU		

Kike Amonarrizen umorea

Twitterren ligatzen

- Alabatxo! Zertan ari zara twitterren okinarekin ligatzen? Zure aita izan dai-teke etal
- Niri adinak bost, aital
- Ez didazu ulertu...



Soluzioa

H													
Z	H	O	H	E									
	L	O	T	O	R								
H	I	G	T	A	N	O							
	A	L	D	I									
						A	N						
		T	H	I		R	A	Z	I	E	R	A	
						A	N		H	A	Z	I	
						I	K	A	R	A	K	I	N
G						A							
I	S	A	I			I	R	E	N	H	A	Z	I
E	T	S	A	I		S	O	L	A	S	G	A	I
Z	I	E	R			R	A	K	A	R	A	K	I
B	I	E	R			P	U	R	G	A	I	K	A
A	R	I				B	E	N	D	I	Z	A	B
A	R												
I													
E	T	S	A	I									
Z	I	E	R										
B	I	E	R										
A	R	I											
A	R												
I													
E	T	S	A	I									
Z	I	E	R										
B	I	E	R										
A	R	I											
A	R												
I													
E	T	S	A	I									
Z	I	E	R										
B	I	E	R										
A	R	I											
A	R												
I													

HALA BEDI IRRATIAREN 30. URTEURRENA

Joan ez zirenen itzulera

GASTEIZKO kaleetako soinu-banda Hertzainak, La Polla Records eta enparauek osatzen zuten garaian sortu zen Hala Bedi irratia, 1983an. 30 urte geroago, gauza asko aldatuagatik, musikaz blai dira irratiko uhinek. Hortaz, zer hoberik urteurrena ospatzeko omenaldi musikala baino?

Idea horri heldu eta azken hiru hamarkadatan Euskal Herrian sortutako kanta banaren bertsioa egiteko eskatu zieten inguruko talde eta musikariei. Izaki Gardenak, Bronze, Betagarri eta abarrek beren estilora eraman dituzte Ruper Ordorikak, Itoizek edota Potatok jotako doinuak. Nostalgikoak asebeteko dituen arren, nostalgikoegiak argudiorik gabe uzteko moduko bilduma da emaitza.

Xabier Montoiaren pop soil bezain sendoak eman zion hasiera gauari. Gasteiztarrak Luis Fernandez eta Ibon Rodriguez izan zituen lagun, txeloan eta pianoan hurrenez hurren. Ba omen zuen “etxean” jotzeko gogo, eta hastapenean herabe xamar agertuagatik, laster hasi zen eszenatokian txoko batetik bestera mugitzen, balantza ez-tian, kantuen erritmo eta hitz sentikorretan murgilduta. Haatik, eserita eta gitarra eskuan zuela eskaini zigun kanturik bereziena: sekula grabatu gabeko *Galderak*.

Gitarra elektrikoak soilik entzun nahi zituzten entzule –izen hori merezi ez duten arren– batzuen marmar geldi ezina izan zen gaueko alderdi ilunena. Ironiaz aipatu zituen Montoiak, etetea lortu gabe. Hirukoteak eskainitako azken abestiak baina, berriketa oro estali zuen. Oso aintzat hartzekoa da BAP!! taldearen *Plastikozko janariak* abestiaren bertsioa. Garrasi ozenek eta beso mugimendu azkarrek batzuok bideoetan bakarrik ikusi dugun Montoia ekarri zuten gogora.

Jarraian, Sumision City Blues (SCB) boskoteak hartu zuen giroa



LANDER ARRETxea

Hala Bedi 30 urte kolpez kolpe diskoaren aurkezpen gisa, kontzertua antolatu zuten azaroaren 2an, Gasteizko gaztetxean. Argazkian, Xabier Montoia.

berotzeko ardura. Blues rock bizia egiten dute gasteiztarrek, Iñaki Urbizuren jarrerari eta letrei esker puntetik ere baduena. Ahotsak une batzuetan kale egin zion arren, Obligaciones taldean aritutako abeslariak maisuki gidatu zuen kontzertua, jarrera probokatzaile eta esaldi burutsuekin guztion arreta bereganatuz. Baina bi gitarrak dira protagonista behinenak. Las Victimas del Chacal-eko *solo* segida etengabea izan zen gaueko unerik gogoangarrietakoa.

Ikusleak Sixtysexers nafarrak entzuteko gogoz ginen ordurako. 2010etik lozorroan egon da Berako boskotea eta Gasteizkoa izan zen ordutik Euskal Herrian jo duten lehenengo kontzertua. Geldiuneak beste hainbat proiekturi eman dio bidea: ZaKillers, Muturbeltz, SCB, Joseba B. Lenoir... Baina hiru urteok piztu eta puztutako gogo nabari zen taldekideengan; disko berria buruan ei duten arren, zuzenekoekin hasi nahi izan dute horri heldu aurretik. Inaxio Agara bateria batu berri zaie, eta horrenbestez, jatorrizko formazioa itzuli dira.

Indarrez gainezka igo ziren eszenatokira, gogotsu, plazaratutako disko guztietatik edaten duen erreperitorio orekatuarekin. Talde osoa izaten jarraitzen dute: erritmo oinarri sendoa, gitarra-jotzaile trebeak eta hutsik egiten ez duen Mikel Larretxaren ahotsa. Taldearen rock biziak gora egin zuen etengabe, baita aurrekoa gaunditzea ezinezkoa zirudienean ere. Une gorenean amaitu uste genuenean baina, etenaldia egin eta taula gainera itzuli ziren berriz, beste pare bat abesti eskaintzeko. Tamalez, ez zuten aurrekoen indarra berdintzerik izan. Baina barkatu beharko zaie, hiru urteko geldialdiaren ostean, abesti asko zor dizkigute eta.

Atzera begira jarrita –eta Gasteizen zer esanik ez– bada zer entzun eta txalotu, baina nostalgikoak nostalgiko, rock and rollak ez gaitu sekula utzi. Berako boskotea ere ez zen oso urruti joana, baina elkarrekin eta beti bezain indartsu itzuli dira berriro ere.

Kontua zera da: *Are you ready?* ■

Lander Arretxea



Olagarroen propulzio sistema imitatzen

ALBERT KOK-CC BY SA



ALEMANIAKO Fraunhofer Institutuak olagarroen propulzio sistema aztertu du, imitatzeko asmoz. Olagarroak, denbora gehienez, itsas hondora higitzen dira, eta euren burua arriskuan ikusten dutenean propulzio-sistema berezi bat abian jartzen dute. Horren bidez ur kantitate handia xurgatzen dute azkar-azkar, azalaren azpian duten tutu batetik, eta ur hori ia bat-batean botatzen dute sabelaldean duten zulo batetik. Sistema horren bidez oso abiadura handia lortzen dute, eta gainera gai dira ura nahi duten nora-

biderantz hustu eta, ondorioz, eurak ere nahi duten lekura higitzeko.

Fraunhofer Institutuan olagarroen mugimendua imitatu dute hogei zentimetroko diametroa eta lau zentimetroko luzera dute lau globori enbolidun pistoi bana ezarriz. Sistema osoa 3D inprimagailu baten bidez sortu dute, eta ikerlariak adierazi dutenez, abantaila ugari du ohikoekin alderatuz. Batetik, helizerik ez duenez ez dio horrenbesteko kaltea egiten itsas faunari; bestetik, kutsadura gutxiago sortzen du. ■



Milatik gora exoplaneta ezagun

ORAIN HOGEI URTE INGURU ez zen gure eguzki sistematik kanpoko planetarik ezagutzen. Udazken honetan, berriz, 1000. exoplaneta ezagutu dugula diote ikerlariak. Ofizialki, Michel Mayor eta Didier Quelozek aurkitu zuten lehen exoplaneta: 51 Peg b.

Baina oraindik, planetak atzemateko modu nagusia so egitea da. Hain zuzen ere, izar baten argitasuna periodikoki aldatzen bada, horrek adierazten du haren eta gure artean zerbait dagoela. Hala ere, metodo horrek nahasi egiten ditu benetako planetak direnak eta beste motetako "orbanak". Ziurrenik, planetatzat jo diren asko beste zerbait direla jakingo dugu datozen urteetan.

Hutsak huts, ziur gaude gehiago izango direla aurkitutako planetak zerrendatik ezabatutakoak baino. Beraz, gero eta hurbilago gaude Lurraren antzeko planeta bat topatzetik. ■



NASA



Azukrea gaur egungo gaitz askoren eragilea izan daiteke

Gizateriaren historiaren zati handienez ez bezala, gaur egun gaixotasun kronikoak dira heriotza-kausa nagusia. Jende gehiago hiltzen da minbiziaren, diabetesaren eta bihotzeko gaitzengatik, birus eta bakterioek eragindako gaixotasun infekziosoengatik baino. Errudina azukrea dela uste dute batzuek.

ttiki.com/56793
(Euskaraz)

India, Marterako bidean

Indiak Mangalyaan izeneko zunda espazioratu zuen iragan azaroaren 3an. 1,3 tonako satelitearen kostua 55 milioi eurokoa izan da, hau da, NASAkoen %10. Era horretan, Indiako lehen estatua izan nahi du Marterako bidean.

ttiki.com/56794
(Frantsesez)

Ozeano Artikoko azidotasuna, uste baino handiagoa

AEBetako ikerlari talde baten arabera Artikoan gertatzen ari den izotzaren likidotzeak eragin zuzena du ozeanoaren azidotasunaren hazkuntzean. Antza denez, gero eta ur masa handiagoa geratzen da karbono dioxidoaren eraginean, eta horrek eragiten du itsasoa azidoagoa izatea.

ttiki.com/56795
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Paleosagardoa

GASTRONOMIA=ASTONOMIA nioen lehengoan. Vazquez Montalban jeniozko idazlea zenak gastronomoen kontrakoa naizela erakutsi bazidan ere, mahaia bezainbeste gurtzen dudan altzari gutxi dago. Burua mugitzen duen makinari eman beharra dago. Jan eta edan. Sagardogile batek bere botiletan hala jartzen du: “Edan eta edatera eman”. Geure mahaian jan-edanaz asko ikasi ohi da, neuk gehien.

Moko=McIntosh, sagarra sagar. Moko omen da gaurko enologoaren iritziz sagardotarako sagar onena. Sagardozaleei galdetu behar... Gure mahaian ikasia dut: behin sagarrak ez hemen eta McIntosh sagarrez betetako trenan iritsi omen zen. Harena, hura bai sagardoa! Geroztik, etxeko sagastietan Makintox aldaerako arbolak ez dira falta izan. Mac, McIntosh baita, eta sagarra, Apple.

Ikasi=irakatsi denez, urrutira joan naiz Sagardoaren Unibertsitatearen eskutik. Italiara. Han ere sagardoa egiten da, baina iparraldean, gutxi eta gozoa. Batzuek euskal erakoa edan nahi, baina, kanpotik ekarri beharrean beraiek egiteko adinako ausardiak otarra bete eta ekin diogu. Atlantiar kultura Mediterraneora, Genzanora eta Casaprotara. Oliogintzaz eta mahatsardogintzaz ikasi eta sagardoaz irakatsi. Sagardoaren kultura

gustura aditu dute, baina ondoren sagardoa egin egin behar zen. Ez sagar, ez matxaka, ezer gabe, lotsarik ere gabe aurrera. Bi barrika bordeles betetzeko lanari ekin genion, gogoz eta herrilanean. Hiriburuari Eroma esaten diote bertakoek, ez guk diogun Erroma. Eroma elikatzen duen merkatu izugarria sagarreta; jan-sagar aukeratik, Australian sortu zuten Granny Smith aldaerakoak erosi, 704 kilo, 51 kaxa, 60 bat ale bakoitzean, 3.060 sagar. Matxakarik ez zenez, eskuz jo behar izan genituen sagarrak, makilaz eta harriz egurra eman behar, ale bakoitzari lau bat kankateko. 12.240 ukaldi. Paleosagardoa. Hura harrikada, geurea eta festa. Eta festak dena bideratzen du: herriko amona-aitonek etxe batzuetan jaso den sagar zahar baten berri ekartzea (*citriola* gorde-sagarra), FAOko albaitarien buruak eta *carabiniere* batek tresnak uztea, herriko alkateak bere dolarea lagatzea, borondatzeko hogeik lagunek lan ezezagun batean murgil egitea... Sagardo italiar berriaren bueltan mundu handi bat eraiki da: amona sardinarra eta siziliarra, sen zorrotzeko errumanian finak, hippy eta okupa eromatarrak, abizen eus-



Granny Smith aldaerako sagarrak harriz kolpatzen.

kalduneko amerikar jauntxo “ia indianoak”, barrika frantsesak, euskaratik itzulpena... Denak lanean, italiar erara, baina lanean. Eta zein ona den lana! Ganboatarren abizeneko idazle kolonbiar sonatu bat genuen tartean, sekula egin duen gauzarik euskaldunena semeari erakusten, estasian, lanak barre-nak mugituta.

Harrizko Eroma=harrikada. ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Udaraz gero gure lurretan eta bide bazterretan landare bat agertu da –hau idazterako desagertu ere bai–, honako ezaugarriak dituena:

Bi metro hazten den biurteko landare sendoa da. Sustraiak kanabera baten antzeko barren hutsa du. Hosto handi xamarrekoa, ilerik gabeak eta lobulu koskadunak, sustraian peziolo lekadunen bidez sartzen

zaizkio. Loreek bost petalo zurixka izaten dituzte, eta hainbat erradioko ginbail borobila osatzen dute. Ginbail familiako beste espezie bakar batekin ere antzik ez du. Usain ona botatzen du.

Jakin nahi nuke *Angelica archangelica* edo aingeru-belarra ote den. Mila esker

Pili Otaegi (Larraul)

Kaixo Pili. *Angelica archangelica*-k Europako iparraldeko muturra du bizitoki naturala. Euskal Herrian ez da berez bizi; baten batek landatua izango du, agian. Aingeru-belar landatua esaten zaio. Ginbaildunen familia-

ko landare ugari dugu hemen, baita *Angelica* generoko beste batzuk ere, adibidez: *A. sylvestris* (mendiko aingeru-belarra) eta *A. major*. Beraz beste senideren bat izango da zure saileko hori.

Atleten izerdi garestia

VATIKANOKO MUSEOA



DANIMARKAKO MUSEO NAZIONALA



Ezkerrean, Lisipo greziararen *Apoxyomenos* eskultura, atleta izerdia, hautsa eta olio estrigilaz azaletik kentzen irudikatzen duena. Eskuinean, brontzezko estrigil sorta.

ERROMA, K.O. I. MENDEA. Plinio Zaharrak (23-79) *Naturalis Historia* lanean Antzinaroko ezaguera zientifikoa biltzeko ahalegina egin zuen eta, besteak beste, atleten izerdia zein garestia zen azaldu zuen. Eta ez zen atletek garaipena eta hotsandia lortzeko egin behar zituzten entrenamendu gogorrez ari, hau da, erromatar idazleak esana ez da irudizko adieran hartu behar, literalki baizik. Pliniok ez du salneurri zehatzik aipatzen, baina antzinako Erroman atleten eta gladiadoreen izerdia saltzen zen, bai garesti saldu ere.

Antzina, greziarrek eta erromatarrek ez zuten xaboia erabiltzen. Uretan sartu ondoren, hainbat olio eta ukendu ematen zituzten azalean, eta pilatutako zikinkeria zaharrak eta garbigarri berriak kentzeko, urberritzerik ezean, erromatarrek *estrigil* esaten zioten hazkagailu modukoa erabiltzen zuten.

Kirolariak maiz erabiltzen zuten metalezko tresna. Lehiatu edo entrenatu baino lehen olio eman ohi zuten azalean, azala egokitzeko eta inpaktu arinengandik nolabaiteko babesa izateko. Saioa amaitzean, gorputza estrigilaz igurtzi eta olio, izerdi, hauts eta azal arrastoak kentzen zituzten. Atletak eta gladiadoreak indarraren eta kemenaren eredu miretsiak zirenez, gimnasioetako eta palestretako arduradunei estrigilaren uzkinak mozkin bihur zitezkeela bururatu zitzaizkien. Hala,

souvenir saltzaileak bailiran, zirko atarian saltoki txikiak paratzen zituzten, atletek botatako substantzia oretsua dosi txiki eta garestietan saltzeko (borrokan hildako animalien koipea ere saltzen zuten, merkeago). Izerdiak jatorrizko jabearen energia gordetzen omen zuen eta, horregatik, hainbat gaitz eta arazo fisiko sendatzeko gaitasuna zuen, propietate kosmetikoak zituen eta afrodisiakoa ere ba omen zen. Plazebo efektuaz harago, Pliniok ez du ematen ustezko sendagai mirakulutsuaren eraginkortasunaren frogarik.

Besteren izerdi zaharmindua hartzea, hortz-haginak gernuz garbitzea... iraganeko higieho hitura asko gutxienez zalantzarriak iruditzen zaizkigun arren, ez da Antzinaroraino joan behar adibide gehiago topatzeko. Duela hamar urte, interneteko enkante etxe ezagun batean “Beckhamek sinatutako eta izerditutako (sic) elastikoa salgai” zioen eskaintza argitaratu zuten; enkantea 4.500 eurotan abiatu zen. 2007an, Shanghain, Rafael Nadal eta Andy Roddick tenislarien elastikoak 1.100 euroren truke saldu zituzten enkantean. Roger Federerrek hilabete batzuk lehenago erabiltako trajea 1.011 eurora besterik ez zen iritsi, Jason He aurkezleak ederki sustatu zuen arren: “Berezko usaina gordetzen du eta ez da garbigitik pasa”. ■



Arrastoak

XVIII. mendeko Pantone paleta?



MADRILGO LORATEGI BOTANIKOA

EGUNGO BEGIETATIK ikusita margo katalogo itxura duen dokumentu hau Tadeus Haenke (1761-1817) naturalistak egin zuen. Haenkek Río de la Plata inguruko landarediaren koloreak bildu zituen koadernoan. *101 maisulan: zientzia eta artea Madrilgo museo eta liburutegietan* proiektuaren artelanetako bat da

koadernoan. Ekimenak arte zirkuitu nagusietatik kanpoko obra ez oso ezagunak bisitatzeko proposamena luzatzen du, eta Madrilgo kaleak ibiltzeko aukerarik ez duenarentzat ibilbide birtuala egiteko aukera eskaintzen du www.101obrasmaestras.com/es webgunean. ■

Kooperatibagintzaren historiaurrera bidiaia

Batzuek kooperatibagintza zalantzan jarri duten honetan, euskal industriaren “mistikaz” asko hitz egin da. *Ormaiztegi 1860-1970* liburuan, gure industriaren historia zati txiki bat argitaratu du Millan Irizarren Eskutik Kultur Elkarteak. Euskal Herriko eskualde askotan josirik dagoen enpresa-ehun anitzaren zergatiak ere uler litezke, Ormaiztegi herria eta Irizar kooperatiba adibidetzat hartuta.

| URKO APAOLAZA AVILA |

Argazkiak: *Ormaiztegi 1860-1970*


JOSE FRANCISCO IRIZARREK 1866an Uherkalde baserria erosi zuenean, nekez pentsatuko zukeen auzokoen sardeak eta guardiak konpontzen egin arotz lanek zertan bukatuko zuten. Egun, milaka langile ari dira Irizar Taldea osatzen duten enpresetan

lanean, horietako 700 kooperatibista moduan. *Ormaiztegi 1860-1970* liburuan bilakaera horren nondik norakoak kontatu dituzte, eta era berean, Ormaiztegi herria Gipuzkoako industrializazio heterogeneoaren epizentroan kokatu dute.

XIX. mendean faktore ugari eragin zuten Gipuzkoan hainbat alorretako lantegiak –papergintza, ehungintza eta metalurgiakoak, batez ere– toki zehaztutan bildu ez baizik bailara askotan barreiatzea. Bailara horietako bat da Goierri, eta



Irizar anaiek lehenengo autobusa 1928an karrozatu zuten Juan Apaolazaren enkaruz.



Ezkerrean, autobus muntaketa Irizarreko pabilioi zaharretan. Behean, Ormaiztegiko lehen industria eremua; Jose Mari Lasa, Irizar anaiak, eta Juan Azurmendiren tailerrak.

Goierriin toki estrategikoan dago Ormaiztegi.

Zeles Otamendi Udaleko idazkari lanetan hasi zenean harrিতuta geratu zen inguru horretan zegoen enpresa mordoarekin. Jakin zenean Millan Irizarrek bere enpresaz dokumentazio ugari zuela, hura txukuntzeko zirikatatu zuen. Hortik sortu zen liburuaren proiektua, Norberto Ibañez eta Jose Antonio Pérez historialarien ikerlanari esker egina, eta Millanen heriotzaren ondoren, haren seme Xabierren bultzadaz argitaratua.

Ormaiztegi: Gipuzkoako industrializazioaren paradigma

Irizarren arrakastak itzalpean utz dezake Ormaiztegin mende eta erdian egosi izan

den enpresa ekintzailletza. Norteko trenbidearen etorrerak, hala nola, hurbil zituzten meatzeek eta bainuetxeak erakarrিতako negozioek akuilatuta, Ormaiztegin laster ugaltu ziren tailer txikiak. Ia gehienetan baserrian ere aritzen ziren “obrero mistoak” ziharduten; liburuaren egileen aburuz “industria gipuzkoarren funtsezko pieza” bihurtu ziren langile horiek eta egun oraindik badira hala dabilzanak.

Ormaiztegin 1860an apenas zeuden aroztegi tradizional batzuk eta teila fabrika bat. 1931n, burdindegiak, ferrategia, altzari pabilioia, aroztegi modernoa, gaseosa fabrika, zerrategi mekanikoa eta karrogilea.

Denbora horretan energia elektrikoaren zabalpena gertatu zen. Euskal Herri hezean urri ez diren

ur-jauziak aprobetxatu zituzten zentral hidroelektrikoak ezartzeko. Esaterako, Eztanda eta Argisao errekatatik atera zuen Juan Azurmendik bere ferra-fabrikarako argindarra, eta Andres Telleriak 1920ko hamarkadan Astigarreta herriko zentrala erosi zuen, teila eta adreilu negozioa modernizatzeko.

Duela gutxi arte Gipuzkoako ehun industrialaren %60tik gora enpresa “familiarren” esku zegoen. Ormaiztegiko enpresari-leinuei errepasoa eginez aurkituko ditugu irizar-tarrak, ormazabal-darrak –Indar motor fabrikaren sortzaileetakoak–, azurmenditarrak, telleriatarrak, Guerra anaiak, baita berrikuntzan aitzindari izan zen Oena lantegiko nagusi Jose Maria Lasa ere. Lasa, aroztegi bateko dinamoarekin lanean arizetik, aparatu eta motor elektro-mekanikoak egitera igaro zen.

Enpresariiek, etekin apurrak berriz inbertituz lortu zuten negozioa aurrera ateratzeko beharrezko finantzazioa. Liburuaren egileen esanetan, ondorioz ez zuten fortuna aranditsurik egin: “Horrela, bere kasa zaildu-





Irizarreko langileak 50eko hamarkadan. Enpresak kooperatiba sortzeko bi arrazoi nagusi ikusi zituen: langileak beste enpresetara ez joatea eta inbertitzeko kapitala eskuratzea; bazkide bakoitzak 50.000 pezeta jarri zituen.

tako Gipuzkoako nagusiaren irudi bereizgarria osatu zen, langile auto-didaktarengandik askoz hurbilago dagoena langilearen errealitatea guttiz arrotza zaion enpresaburuarengandik baino”.

Irizar karrogileak eta kooperatibismora jauzia

Irizartarrak Uherkaldera aldatu zirenean *karroilene*koak deitzen hasi zitzaizkien. Jose Franciscoren semeetako batzuk beste lanbidetan hasi ziren –Pablok tailer mekanikoa jarri zuen eta Juan Cruzek altzari fabrika–. Aitzitik, Joselontxok eta Ceciliok aitaren karretero negozioari heldu zioten.

Baserriko tailerrean zuten asto bidezko errota edo *malakate*arekin hasi ziren lehenik, baina gero baporezko zerra bat jarri zuten gurdi erruedak egiteko. 1912an tokiz aldatu ziren, pabilioi handiago batera. Ez zen azkeneko aldia izango.

1920ko hamarkadan gero eta maizago ikusten ziren automobilak errepide eta kaleetan –Gipuzkoan 698 zeuden matrikulatuta 1926an–. Irizartarrek karrozatutako lehen autobusa Gabiria-Ordizia ibilbidetarako izan zen, 1928an Juan Apaolazarentzat egina. Autobus hura 1936an konfiskatu egin zuten eta Apaolazak gidari moduan aritu behar izan zuen frankisten bandoan.

Gerra ostean Cecilioren semeak soldaduskatik etorri ziren, eta aitaren eta osabaren heriotzarekin

enpresaren gidaritza hartu zuten. 1948an hasi ziren modu sistemati-koagoan autobusak egiten, oraindik hornidurarik kasik ez zegoenean.

1950eko hamarkadak aurrera egin ahala, nabaria zen enpresa modernizatze-ko beharra, egoera politiko berriak –erregimen frankista autarkiatik irteten ari zen– inbertsioa eta hedapena eskatzen zituen. 1956an Irizar Hnos. y Cía S.R.C. sortu zuten eta 1960an Irizar S.A. Hainbat enpresa eta konpainiarekin egindako kontratuen bidez produktzioa handitu eta hobetu zuen Irizarrek, bulego tekniko bat ere sortu zuen autobusak diseinatzeko.


“Karrozeria-lanak nabarmen ugaritu ziren eta arazo bat sortu

zen: langileek ofizioa ikasi orduko, beren kontura jarri edo beste enpresa batzuetara jotzen zuten. Halaber, inbertsioei aurre egiteko kapital handiagoa behar izaten zen. Kooperatibaren bidez iruditu zitzaigun langileak enpresaren barruan txerta zitezkeela, eta bide batez, beharrezko baliabide ekonomikoak ere lor genitzakeela”. Halaxe laburbildu zuen Millan Irizarrek kooperatiba bihurtzeko erabakia.

1962an, anaietan buru egiten zuen Miguel Mari Irizar harremanetan jarri zen Jose Maria Arizmendiarrarekin, Serafin Esnolaren bidez. Hala, enpresako langileei egitasmoa azaldu zieten eta 52 fundatzailek hartu zuten parte kooperatibaren sorreran.

Enpresak egonkortasuna lortu eta bultzada handia izan zuen: 1960an bederatzi autobus egin zituzten, 1963an 35 izan ziren. Hezkuntzaren esparruan ere aurrerapen handia ekarri zuen izaera kooperatiboak. Irizarrek, enpresa barruko formazioa bultzatzeaz gain, Goierri lanbide eskolaren sorreran parte hartu zuen.

Irizar kooperatiba bihurtu zenetik 50 urte bete dira. Denbora horretan gaziak eta gozoak ezagutu ditu: 70eko hamarkadan Irizar familiaren aldentzea, 80koan krisi latza, 90ean internazionalizazioa, eta 2000koan prestigioa eta arrakasta. Denborak erakutsiko du mundu mailako krisi estrukturalera egokitzen jakin duenez. ■



Irizarren kooperatiba sorrerako 1962ko akta.



Kiroldegia eta futbola lehen jomugak

Euskaraz egitea kirola egitea bezain osasuntsu badela pentsatuz Sopelan euskara sustatzeko kanpaina abiatu dute. Futboleari diren neska-mutilen entrenamenduak euskaraz izan daitezten tematu dira Aitxu! euskara elkartekoak, Udalaren laguntzaz. Kiroldegiko saioak ere euskaraz izateko konpromisoa hartu du zerbitzua kudeatzen duen enpresak.

| MARIJO DEOGRACIAS |

Argazkiak: Sopelako Udala

SOPELAN KIROLEAN ERE EUSKARAZ. Lelo horrekin ekin diote Aitxu! euskara taldekoek erabilera sustatzeko kanpainari. Erabileraren inguruko neurketak dioenez, Bizkaiko herri horretan 2006tik jaitsi egin da sope-loztarren artean euskaraz jarduteko ohitura. Hala, herriko kirolzaletasunaz baliatuz, futbol taldeekin lanean hasi dira Athleticen jokalariei ohi Koikili Lertxundiren aholkularitza enpresarekin batera. Era berean, kiroldegian eskaintzen diren ikastaroak euskaraz ere izan daitezela lortu dute ikasturte honetan.

Elkarteko kideek ikusi zuten Udalak eskaintzen zituen kiroldegiko jardueretatik asko eta asko gaztelaniaz zirela, umeendako zehatz batzuk izan ezik. Bestalde, herrian era autonomoan funtzionatzen duten kirol elkarten jarduna ere gaztelania hutsez zela ikusi zuten, euren harrobia Sopelako ikastetxeetatik datorren arren, hau da, D erduko neskato-mutikoak dira harrobia. Egoera hortaz kezkatuta lanean hasia erabaki zuten. Mikel Begoña elkarteko kideak dioenez, neketsua izan da kanpaina guztia antolatzea, baina Udalaren babesa izan dute eta kiroldegia daraman enpresa ere buru-belarri inplikatu da. Esan nahi baita, bi lan lerro abiatu dituztela *Sopelan kirolean ere euskaraz* kanpainan. Kiroldegiko zerbitzua kudeatzen duen Servicio enpresarekin hartu-emanetan jarri ziren hango



Kontseiluak hainbat herritan antolatzen duen lasterketa Sopelan ere egin da, Udalaren laguntzarekin.

kirol eskaintza euskaraz izan zedin. Aurretik ikerketa egin zen, ikusteko zein ikastaro ziren euskaraz eta zein gaztelaniaz. Erabiltzaileen aldetik ea eskaririk egongo ote zen jakin beharra zegoen eta horretarako apirilean inkesta egin zen. Erabiltzaileen %70ek ikastaroak euskaraz izatea gura zuten. Hori jakinda, kanpaina diseinatzeari ekin zioten, ikastaroetako begiraleak inplikatu beharra baitzegoen. Euskaltegiarekin harremanetan egon dira, monitorentzako ikastaroak antolatzeko, guztiak ez daukate euskara maila bera, ezta kirol saioak euskaraz zuzentzeko

ohitura ere. “Harrera oso ona izan du kanpainak erabiltzaileen artean, eta monitoreen inplikazioa erabatekoa da. Monitoreetako bat esaterako, katalana da eta eskolak euskaraz ematen ditu”, dio Begoñak.

Julen Nafarrete Sopelako udal komunikazio arduraduna da. Berak gogoratu digunez, “kiroldegiari heldu zitzaion, azken urteetan eskaintza guztia eta propaganda gaztelania hutsez zelako. Gure helburua kirol eskaintzaren %70 euskaraz izan dadila da. Orik %70era iritsi gura izateak handinahia dirudi, baina inkestaren emaitzek horretara animatzen

gaituzte”. Hala, ikasturte berrian, adin txikikoentzako saioen %100 euskaraz dira eta gainerakoan *pilates*, *ciclo*, tonifikazioa eta *bodycombat* saioak elebidunak izatea erabaki da.

Futbol entrenamenduak euskaraz

Sopelan kirolean ere euskaraz kanpainaren beste lan lerroa herriko kirol taldeekin da. Sopela kirol alorrean nahiko potentea da. Surfagatik ezagunagoa izan arren, igeriketa taldea, pilota elkarteak, txirrindularitza, saskibaloia, tai chi eta beste hainbat kirol talde daude. Hala ere, jende gehien batzen duena futbola da. Horregatik kanpaina futbol taldeekin hastea erabaki zuten. Aholkularitza enpresa batekin harremanetan jarri ziren eta tailerrak antolatu zituzten futbol entrenatzaileekin, erabilera bultzatzeko eskolatik kanpoko jardueretan. Saio teoriko eta praktikokoak aurreikusi dira Ugeraga Kirol Elkarteko zazpi taldeetako hamar entrenatzaileekin, Ander Deuna Ikastolako bi taldeetako entrenatzaile birekin eta Zipiriñe Eskolako talde bietako lau entrenatzaileekin. Orotara, hamaika taldeetako hamasei entrenatzailek jasoko dute futboleko entrenatzeko euskarazko trebakuntza. Saio praktikoen ondoren, jarraipen lana egingo da eta abenduan, ondorioen arabera, laguntza saioak behar balira, gehiago sakonduko litzateke entrenamendu saioetan.

Saio horiek Itzarri Consulting enpresak bideratzen ditu, Athletic-eko jokalaririk ohi Koikili Lertxundik zuzentzen duen enpresak. “Izan ere, kirol erreferenteek garrantzi berezia daukate *Sopelan kirolean ere euskaraz* kanpainan. Herriko kirolari ezagunak eta herrian bizi diren goi mailako kirolariak inplikatu ditugu kanpaina ezagutzera emateko”, azaldu digute Begoñak eta Nafarretrek. Hala, Jose Anjel Iribar futbol atezain ohi ezaguna eta Eunate Agi-



Gaztetxoak kirolari izarrei begira aritzen dira. Haien ahotan euskara jartzeak badu garrantzia. Afixan Eunate Agirre bodyboardlaria eta Jose Anjel Iribar atezain ohiak.

rre bodyboard txapelduna ikusi daitzke atera dituzten horma-irudietan. Baina ez dira bakarrik: parapentistak (Gari eta Wiso), surflariak (David Bustamante, Aritza Saratxaga, Loiola eta Leticia Canales eta Kepa Acero), igerilariak (Oreina Fernandez, Alaitz Arozeta eta Ager Axpe), txirrindulariak (Oier Egaña eta Joseba Momoitio), pilotariak (Lejonagoitia familia, Torre familia eta Patxi Ziskar), futbolariak

Kiroldegiko erabiltzaileen %70ek ikastaroak euskaraz izatea gura zuten

(Maddi Torre, Galder Izaola, Jon Andoni Villamandos, Ibai Baldelona) eta eskalatzaileak (Agurtzane Romero eta Ugaitz Aguilar) prest agertu dira argazki bidezko kanpainan parte hartzeko.

Ezagutza %38,5; erabilera %9,4

“Euskararen erabilera sustatzeko filosofia integral baten barruan kokatzen da kanpaina zehatz hau. Era transbertsalean lan egin gura da

euskaraz sustatzeko. Esaterako, kultur agendan euskaraz eskaintza zabala dago herrian, ez bakarrik umeentzat”, dio Nafarretrek.

Ildo horretan, udal barruan hartu-emanak euskaraz izan daitezten eta herritarrekiko arretan ere hizkuntza sustatzeko euskara plana abiarazi berri du Sopelako Udalak. Izan ere, soziolinguistika azterketek diotenaren arabera, Sopela Uribe-Kosta eskualdeko bigarren herririk gazteena izan arren, euskararen erabilera maila kezkatzekoa da. “Emaitza negatiboak izan ziren 2006an: %13,9 eta 2011n egindako inkestak ageriagoan utzi zuen herriko egoera: %9,4ra jaitsita zegoen erabilera maila, ezagutza %38,5ekoa den arren. Gazteen artean hutsune nabarmena dago erabileran; helduak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Horregatik, garrantzitsua da gazteak biltzen diren gunetan eragitea eta espero dugu kanpaina honen amaieran, urtebete barru, gainerako kirol esparruetan eragiten hasteko moduan egotea”, dio Nafarretrek. Begoñak badaki kanpainak ez duela egoera goitik behera aldatuko, “baina hasteko modu bat da”. ■



Babeslea: EMUN

emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

HIZKUNTZA ZERBITZUAK KULTURA ZERBITZUAK ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO ZERBITZUAK PARTE HARTZE ZERBITZUAK

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO
www.emun.com

TERMOMETROA

KLIMA ALDAKETA

Munduko izotzak urtuko balira Baiona, Donostia eta Bilbo urpean lirateke

*National Geographic*ek mapa bitxia atondu du. Munduko izotz guztia urtu dela erabaki du eta kontinentez kontinente erakutsi du nola itsasoak gaina hartu digun. Itsasoaren maila 66 metro igoko bada, atera kontuak.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

EZ ZAIGU BIHAR ETORRIKO itsasoa, izotz koskorrek urtzeko denbora behar dute, *National Geographic*en kalkuluen arabera, 5.000 urte. Alabaina, atmosferara etengabe CO₂ jaurtitzen segitzen badugu izotzik gabeko planeta aurki izango dugu. Eguratsa jasanezina izango litzateke, 26 gradu zentigradutik gorako batez bestekoa izango genuke, oraingo 14 graduekin alderatuta.

66 metro egiten badu gora itsasoaren mailak Londres eta Venezia urpean geratuko dira, Herbehereak osorik desagertuko dira, eta Danimarka ia osoa ere bai. Asian 600 milioi txinatar bizi diren lurrak ur azpian geratuko dira eta Bangladesh osorik galduko da. Mapa arretaz begiratzuz gero irakurlea konturatuko da gure kostaldea ez dela izango lur gehien galduko duena. Baina ez lasaitu gehiegi, Zarauzko malekoia baino pixka bat gehixeago urperatuko litzateke. ■



National Geographic-ek kontinentez kontinente erakutsi du itsasoaren mailaren igoerak ekarriko duen hondoratzea (urdin argiz, urpean geratuko diren eremuak).

Hamaika
ikusteko, bizitzeko

Independentzia
eskura

Ikusi, bizi eta partekatu www.hamaika.tv

f t YouTube

TERMOMETROA

NEGUKO TREGOA

Neguan etxebizitzetara gasa eta argindarra moztea debekatu du Frantziako Estatuak

Urtero bezala, azaroaren 1etik martxoaren 21 arte "neguko tregoa" egingo dute: alokatzaileak ezingo du maizterra etxetik kaleratu, honek ordaintzeko dirurik ez badu ere. Aurten lehen aldiz, gas eta argindar konpainiek ere ezingo dute inor zerbitzurik gabe utzi.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

SEKTORERIK kaltetuenak babestu nahi ditu araudiak, negu gorrian kalean gera ez daitezen edo etxean hotza pasa ez dezaten. Izan ere, 2012an berogailua pizteko adina energiarik gabe geratu ziren 600.000 etxebizitza. Dena den, tregoa ez du zorrik kitatzen. Etxerik gabekoak laguntzeaz arduratzen den Abbe Pierre Fundazioaren arabera, krisi garaioan ere etxe kalera-

tze bortitzak jasaten ari da jendea Frantziako Estatuan. Urtero, martxotik urrira epaileek 110.000 kaleratze agindu ematen dituzte eta horietatik 50.000 inguru gauzatzen dira. Fundazioaren hitzetan, gutxienez hiru milioi lagun baldintza prekarioetan bizi da Estatuan eta beste bost milioi arriskuan daude, alokairua ordaintzeko dituzten zailtasunak medio.

Tregoa eskaera Katalunian

Ur, argindar edo gasa ordaindu ezin dutenak neguan zerbitzurik gabe ez uztea proposatu du Rafael Ribó Herriaren Defendatzaileak. Ribók dioenez, aspaldiko arazoa da pobrezia energetikoa eta 65 urtetik gorakokak, guraso bakarrak eta langabetuak dira kalte-tuenak. ■



NOAUA!KO KULTURALDIA 13
AZAROAREN 8TIK 17RA

AZAROAK 14 > OSTEGUNA "BELARRIAK SOINU", JOSEBA TAPIAREN HITZALDIA USURBILEN ORDUA: 19:30 POTXOENEAN DOAN	AZAROAK 15 > OSTIRALA "IZENIK GABE, 200x133", JOSE LUIS ZUMETAREN DOKUMETALA ORDUA: 19:30 USURBILGO SUTEGIN GONBIDAPENAK NOAUA!N ETA POTXOENEAN	AZAROAK 17 > IGANDEA "AGUR ESATEA" FILMA IZASKUN ARANDIA ORDUA: 19:00 USURBILGO SUTEGIN. SARRERA: 5€ (NOAUA!N ETA TXIRIBOGAN ALDEZ AURRETIK, LEIHATILAN EGUNEAN BERTAN) BAZKIDEEK 3€ (SOILIK NOAUA!KO EGOITZAN, ETA ALDEZ AURRETIK EROSITA)
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

GAIZKA IROZ / KAZETA.INFO



Ministroari gutuna, baxoa euskaraz aldarrikatzeko

OLIVIER DUGRIP Bordeleko Akademiako errektoreak ikasturte hasieratik egunero eskuz idatzitako gutuna jaso du. Baionako Bernat Etxepare lizeoko 200 ikasleek bidali dizkiote. Baxoa euskaraz egitea eskatu dute. Dugripek erantzun egin die, esanez hark ez duela horretan eskumenik, Frantziako Estatuko Hezkunde Ministerioak baizik. Ikasleek eskutitzak idazten segiko dute, eta egunero Vincent Peillon Hezkunde ministroari bidaliko diote bat.

Datorren udaberrian, Seaskako 60 ikaslek egin beharko dute baxoa frantsesez.

6.000 euroko isuna eta bi eguneko atxiloaldia EHEko kideentzat

ITZIAR CLAVER eta Haizea Ramirez de Aldak, bakoitzak 6.000 euroko isuna eta bi eguneko atxiloaldia bete beharko dute. Dagoeneko isuna ordaindua dute eta atxiloaldia azaroaren 23 eta 24an egingo dute.

2011ko azaroko gertakizunengatik auzipetuta zeuden Euskal Herrian Euskarazeko bi kideak. Altsasun *Ezabatu eta euskaraz bizirik* ekitaldian hartu zuten parte Claverek eta Ramirez de Aldak. Foruzainek kalean identifikatu eta 300 euroko isuna jarri zieten euskaraz baino egin ez zirelako. Helegitea jarri eta bertan behera geratu zen isuna.

Handik gutxira, Altsasun 16 seinale ezabatzea leporatu zieten; 6.000 euroko isuna eta atxiloaldia. Claver auzipetuak egoera salatu du: “Gure herrian enegarren mailako herritar izatera kondenatu gaituzte aspaldi; otzanak, obedienteak izan behar dugu, garena izateagatik zigorrarekin topatu nahi ez badugu”.



SEASKA

Seaska Unescon

UNESCOREN 37. KONFERENTZIAN hizkuntza gutxiagotueta komunitateek hitz batzuk egiteko aukera izan dute. Seaskako eta Eskolimeko lehendakari Paxkal Indo, Seaskako zuzendari Hur Gorostiaga eta Okzitaniarazko Ikerketa Institutuko Alexis Quentin izan ziren bilkuran. Paxkal Indok lau minutu eskas izan zituen Frantziako Estatuko hizkuntza gutxiagotuen irakaskuntzak dituen oztupoak azaltzeko.

Frantziaren bi aurpegiak salatu zituen Indok. Frantziak behin eta berriz sinatu dituen nazioarteko itunek aitortzen dute hurrek haien ama hizkuntzan ikasteko eskubidea dutela, baina haren lurraldean gutxiengorik ez balego bezala jokatzen du eta izenpetutakoak ez ditu betetzen.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Fagor erori da, baina ez kooperatibismoa

FAGOR ETXETRESNAK jadanik bere hartzekodunen esku dago, eta seguruenik likidatu egingo dute. Horrek esan nahi du milaka lanpostu zuzen eta zeharkako galduko direla, eskualdea pobretuko dela eta aurreztaile txikiek egindako ekarpen milioidunek ere balioa galduko dutela.

Egoera hau aztertzerakoan, oinarritzkoenari heldu behar zaio. Fagor Etxetresnakek ezin izan du aurrera egin finantzazio faltagatik. Negozioaren zati bat salbatu zitekeen, 800 milioi euroko zorra duen enpresa batentzat finantzaziorik balego. Finantza erakundeek (BBK, BBVA, Santander, Laboral Kutxa eta Lagun Aro) beren arrazoiak izan dituzte Fagor ez salbatzeko. Administrazioek, nahiago izan zuten banku ustelen erreskate milioidunak egin, euskal industria ehunaren parte den enpresa bat erreskatatzea baino. Mondragon Taldeak gainerako kooperatiben ardura du, eta seguruenik, kanpoko finantzazio faltagatik ez dio laguntzarik eskaini hondea jo duen kooperatibari.

Fagor erori da, baina horrek ez du esan nahi kooperatibismoa ere erori denik. Ez da Mondragonen erorketa; errentagarriak diren sozietate ugari barneratzen ditu eta hamarnaka mila langile enplegatzen ditu, munduan erreferentzia izateraino. Ez da eta ezin du izan kooperatibismoaren erorketa. Kooperatibismoaren baloreak defendatu behar dira kapitalismo basatiaren olatutik. Hain justu, marrazo industrialen kontrako borrokan, Fagorrek agian ahaztu ditu bere erroak eta enpresa kapitalista moduan jardun du. Horregatik kudeaketa erantzukizunak argitu behar dira Fagorren eta Mondragonen. Eta aurrera begiratu, egoera bideratuz, langabezia arinduz, enplegu berriak sortuz... Baina batez ere, euskal kooperatibismoaren elkartasun baloreei eutsi behar zaie, olatu kapitalistak harrapea ez gaitzan.

Juan Mari Arregi



Oligarkiaren bortizkeria nola barneratu dugun

La violence des riches plazaratu dute Parisen Pinçon-Charlot soziologo senar-emazteek. Hogei urte daramatzate aztertzen aberatsek klase menperatuen kontra darabiltzaten agintezko tresnak: ekonomikoak, finantzazkoak, kulturalak, mediatikoak, politikoak... Frantziako oligarkiaren erradiografia osatzen ari dira, bestetarako balio duena.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

“PASIERAKO SOZIOLOGIA” DEITZEN diote bereari, umore puska batez, egiten dutenari Michel Pinçon (1942) eta Monique Pinçon-Charlot (1946) ikerlariek. 1965ean elkar ezagutu zutenetik unibertsitatean, Pierre Bourdieu mitikoaren ikasle, elkarrekin dira bizitzan eta lanean.

Frantzian ezagunak dira aberatsen mundutxoaz aztertzen dutelako, tarteka deitzen zaie hedabide handietatik, oihartzun puska bat izan du plazaratu berri duten *La violence des riches*ek. Baina 1980 ingurura arte hauek ere sistemak bazterturikoak aztertzen zituzten batik bat, soziologo gehienek bezalatsu: “Haserretzen ginen ikusirik nola zebilen hainbeste ikerlari elkarren lehian auzune txiroetan, inoiz auzitan jarri gabe sakoneko galdera: zerk eragiten duen bazterketa soziala”.

Horregatik erabaki zuten 1986an burgesia aztertzea. Historiagileak eta ekonomialariak arituak ziren alor horretan, baina oso soziologo gutxi. Senar-emazte izateak erraztu zien lana. Estatistikak biltzetik hasita, liburutegi eta artxibo pribatuak aztarrikatzea pasatu ziren, ordezkari handienekin elkarriketak egitera. Eta lortu zuten muturra sartzea mundu itxi horretan.

“Batzuetan konbidatu izan gaituzte kantari famatu honen eta beste kirolari haren artean, bage-

neukalako halako zera exotiko bat. Sekula ez dugu ezkutatu ezkerrekoak ginenik, eta paradoxikoki, honek ez ditu diruaren aristokraziako zenbait ordezkari gogaitzen, beren interesak defendatzeko daukaten ahalmena baloratzen dugulakoan”.

Lan horretatik atera dira Pinçon-Charloten hainbat liburu famatu 1989tik: “*Dans les beaux quartiers*” (Aberatsen auzoetan, itzul genezake), “*Sociologie de la bourgeoisie*”, “*Quinze promenades sociologiques*” (Hamabost pasiera soziologiko), “*Président des riches*” (Nicolas Sarkozy zela eta)...

Orain plazaratu duten “*La violence des riches*” liburuan ahaleginu dira azaltzen aberatsek gainerako mundutarron kontra darabilten bortizkeria. Hobe esanda, bortizkeriak, ez baita bakarra. “Bortizkeria ekonomikoa dago, hasteko, bere bertsio neoliberallean (...) Korporazio handiak ari dira langileak pilaka kalera-tzen, etekinak handiak izan arren. Horra familia aberatsen bortizkeriaren lehen adibidea!”.

Bortizkeria politikoa darabilte, politikariekin elkar hartuta Estatuaren gezurra indartzen dutenean. Horrek ekarri du herritar soilak eztabaida politikotik aldentzea. Pinçon-Charlotek François Hollanderi ez diote barkatzen beren ustez egin duen traizioa. “Irakasle zen

Stephan Feugèrek egindako argazkian Frantziako gizonik aberatsenetako bat, Bernard Arnault, LVMH korporazioaren *Louis-Vuitton* markako saltokia inauguratzen Txinako Shangain; alboan dauzka Gong Li eta Laetitia Casta aktoreak. Arnault da zerga gutxiago pagatzearen bere fortuna Frantziatik Belgikara eraman duten aberatsen artean ezagunenetakoa. Michel Pinçon eta Monique Pinçon-Charlotek bere liburuetan deskribatu dituzte elite aberats hauen ezaugarriak, bizimodua, belaunaldiz belaunaldi irauteko eta elkarren artean nahasteko estrategiak: “Kooptazioa dute tekniketako bat, ondo dakite nor den beretakoa eta nor ez. Ez da dirua bakarrik, baizik eta haiek zu beren unibertso ‘berezko’ kidetzat hartzea”. Pinçon-Charlotek maite dute *pasiera-ko soziologia* eginez herritarrei erakustea non eta nola bizi diren gure bizitzako gorabehera nagusiak erabakitzen dituzten horiek.

garia publikatu zuen *La gauche qui bouge* (Mugitzen den ezkerre) hitzez hitz dago gaurko bere programan: ekonomian eredu bat besterik ez dagoela, kapitalismoa”. Beraz, alternatibarik ez dagoenez, ezkerrek alternantzia egin behar duela agintearen kudeaketan.

Hitzak ere ostu dizkigute

Bortizkeria politikoa horrek, ezkerreko alternatiba desagertzeaz gain, ekarri du aberatsak eta politikariak erabat nahastu izana. Horrela, zerga saihestea ez da Estatuaren kontrako eraso masiboa soilik: Estatuaren agintariak berak dira lapurretaren konplize. “Louis Vuitton-Moët Hennessey korporazioak baldin badauzka 46 filial paradisu fiskaletan, hori gertatu da Hubert Vedrine, Atzerri ministro izana, administrazio kontseiluan daukalako”. Parisko legebiltzarrean langileak ordezkarien %0,01 baino ez dira, Frantziako biztanleria aktiboaren %52 izan arren.

Pinçon-Charlot soziologoek aipatzen duten bortizkeria ideologikoa ere badago, neoliberalismoa munduari gaur naturalki berez dagokion zera eztabaida ezina dela ezartzen dutenean. Eta hizkuntzazko bortizkeria ere badarabilte aberatsek. “Marxismoaren kontzeptuak berreskuratu behar ditugu, behar



denbora ere. Haiena luzeagoa da. Michel Pinçonek kontatu du nola Parisko jauregi bat bisitatzera joanik, patriarka ikusi zuen bilobari azaltzen XVIII. mendeko familia-koak irudietan. Egun gutxiren bueltan egokitu zitzaion Aubervillierseko HLM (babes ofizialeko etxe) sail bat eraisten ikustea. Aberaskumeak mendetako memoria dakar berekin, aldiz, *cité* hartako mutiko txiroei haurtzaroko oroitzapenak ere birrindu dizkiete. “Klase herrikoien bizimoduak badauka prekariorotasun bat alderatu ezin dena burgesia handiaren biziak daraman patxadarekin”.

Aberatsei patxada inpunitateak ere ematen die. Honetan ez dute deus deskubritu soziologoek, baina garaiotan aipatze hutsa ez da gutxi. Lapurreta egiteagatik espetxera sartzen dituzte hainbeste gazte txiro, lapur handiak kalean dabiltzan bitartean. Honek are gaiztoago egin ditu aberatsak.

“Alerta piztu nahi dugu honetan. Neoliberalismoak ekarri du gizaki bat neoliberala, makurra, nartzisis-ta, legeen gaineratik bizi dena, erreparorik gabe sartzen dena delinkuentzian, badakielako aberatsen gaiztakeriak zigorrik gabe edo oso arin zigortuta geratzen direla”.

Baina hedabide nagusiek gero errepikatuko dituzte lapur handiek ezarritako topikoak: aberatsa ongilea da, filantropia egiten du, munduari laguntzen dio... eta txiroak garestiegi dira, iruzurretik bizi, gizarte laguntzetatik. Langileek sinets dezaten beren xurgatzaileak hauek direla. ■



diren hitzak erabili, kapitala eta kapitalistak aipatu, klase sozialak, zanpaketa, nazioarteko finantza auzitan jarri, azaldu norbaitek milioi bat euro irabazi baldin badu besteren lanaren bizkar egin duela”.

Eztabaida publikoetan horrela egiten saiatzen dira Pinçon-Charlot bikotea. Aurrean badaukate aberats handi bat horri “oligarka” edo “espekulatzailea” deitzeaz gain, neologismoak sortzeko beldurrik ez dute. Obreiroen interesak defenditzeagatik haiei “populistak” esaten dietenei lotsarik gabe erantzuten diete “burguesismoa” (*bourgeoisisme*) edo “oligarkismoa” egiten ari direla. “Umorea ere lagungarri gerta daiteke gauzak mugiarazteko”.

Elite aberatsek hizkuntzen eza-

gutza erabiltzen dute beren mesedetarako. Txikitatik ohitu dituzte bizpahiru hizkuntzatan aise hitz egiten, denak moldatzen dira oso ondo ingelesez, atzerriko egonaldietan ikasita, etxera ekarritako konbidatuekin praktikatuta. Horretan ere langileen ordezkariak gal-tzaile edozein bilkuratan.


Eliteek berez darabilte soziologok “aberatsen internazionalismoa” deitzen dutena. Hizkuntzak jakiteaz gain, mundu osoan inbertitzen dute dirua, Argentinan milaka hektarea dauzkanak berak enpresa handi bat dauka Frantzia eta Europako beste zoko batean gazteluaren jabe da. Izpiritu horrexekin kontrolatzen dute kulturako jendea.

Aberatsek kontrolatzen dute



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona



DANI BLANCO

4,8 milioi eta gogoeta batzuk

AURREKONTUAK nola geratuko diren, hori da urte sasoi honetan murgiltzean han-hemenka zorrotz begiratzen dena. Edozein leku edo gunetan asko izaten da jokoan. Etxe honetan ere berdin egiten dugu: “Nola daude datorren urterako Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak?” “Aurreikuspenetan euskal hedabideentzat berdin, aurtengoa mantenduko ei da”.

Eta hala denean, uf... izaten da lehenengo erreakzioa, aukera bai baitago gutxiago izateko eta orduan komeriak. Itzulpena egin da, soldaten murrizketak, kolaboratzaileentzat diru gutxiago, inbertsiorik ezin egin izana... Diru-laguntzetatik datorrena, lankide batek dioen moduan, “zuzenean zainetara” doa, hori guztia salmentetatik atera beharko bagenu... herri ekimeneko euskal hedabideetan ez leudeke hainbeste hedabide eta leudekeen ahulagoak lirerateke. Hortaz ez dago zalantzarik, are gutxiago krisi sasoi honetan, eta bestela begira erdal medioetan gertatzen ari dena.

Hori da errealtatea, eta neurri esanguratsu batean erakunde publikoei esker daukagu halako euskarazko komunikazio esparrua. Hori onartu eta eskertu behar zaie erakunde publikoei, bereziki Eusko Jaurlaritzari. Gainera, ez dut inongo zalantzarik hala izan behar duela, erakunde publikoek herri ekimeneko euskal hedabideak babestu eta bultzatu behar dituztela. Arrazoi askogatik gainera: 600 lanpostu inguru babesteko, euskaldunak euskaraz irakurri eta ikus-entzuteko aukera izan dezan; euskal komunitatearen ikuspegia Euskal Herrian eta munduan indartu eta zabaltzeko, komunitatea bera trinkotzeko, gizarte pluraltasuna bultzatzeko...

Eta, besteak beste, oro har, oso eraginkorrak direlako efizientzia ekonomikoaren alorretik. Adibidez, zenbat kostatzen zaio administrazioari EITB finantzatzea? Zenbat herri ekimeneko hedabideak? Bietako zein multzok du eraginkortasun handiagoa euskaldunen komunitatean, euskal hiztunen komunitatearen garapenean?

Nik ez dakit eta gustatuko litzaidake zerbait gehiago jakitea, jakin badakidalako biek dutela oso eragin handia, gizarte moderno batean edozein komunikabide sarek duen moduan, baina egin beharko litzateke zelanbaiteko neurketa. Era guztietako datuak ditugu mila konturen gainean, baina halakorik ez. Adibidez, zein multzo ote da, berez, erresilientea? Zein multzok du gaitasun handiagoa egoera gaitzetik indartsuago ateratzeko? Bai, erresilientziarena ez da oso konparaketa justua, finantzazio publikorik gabe ez legoke EITBrik eta herri ekimeneko euskal hedabideak bai (beste gauza bat da zenbat eta nolakoak). Baina, esaterako, %25eko beherakadak noren produktuei eragingo lieke gehiago?

GUSTURA irakurriko nuke –adibidez tesiren batean– bi komunikazio multzo hauen eragin hori zein izan den azken 30 urteetan: lanpostutan, audientzian, hizkuntzaren corpusaren garapenean, eragin sozialean, sarean, euskal kulturaren, gure imaginarioan, pluraltasunean... Euskaldunek nola ikusiko ote gaituzte bi multzoak esparru horietan? Ez da lehia kontu bat, ea nork irabazten duen, baina jakina, baliabide publikoen efizientziaren ikuspegitik interesgarria litzateke. Hainbestetan entzun eta irakurri behar izan baitut zein menpeko


garen euskal hedabideak. Eta krisi garaiotan enpresa eta ekimen pribatura milioiak nola mugitzen diren ikusita, gutxi da euskararen mundura bideratzen dena (nahiz eta seguru nagoen Euskara Sailburuordetzan dirua banatzerakoan izango zituztela euren buru hausteak). Jakin badakit, gainera, eskatu-eman dialektika horretan, eskatzen duenak beti duela gehiago eskatzeko tentazioa. Tira, tesiari ekiteko datu bat behintzat badugu: Eusko Jaurlaritzako 2014ko aurrekontuan EITBrentzat 107,3 milioi euro aurreikusten dira (zenbat da euskarazkoentzat?) eta herri ekimeneko euskal hedabideentzat 4,8 milioi euro.

LERRO hauetatik ez beza inork ulertu EITBko kazetari lankideekiko murrizketak eskatzen ari naizenik, nahikoa dute dutenarekin. Baina baliabide publikoen eraginkortasunari begira, koska horiei ere heldu beharko zaie noizbait, ez EITBkoak murrizteko, baina bai gureak handitzeko. 2014ko Eusko Jaurlaritzako aurreikuspenetan euskarazko hedabideek iazko diru kopuru bera dute, aurrekontu guztia ia %10 hazten denean eta Kultura Sailarenak %5 gora egiten duenean. Gainera pozik egon behar dut, eta nago, hedabideena mantentzen delako, beste batzuk behe-ra doazenean. Baina zer esango dizuet, eta akaso hausnarketaren azken hari hau ez da oso arrazionala, baina amorrua ematen dit jakitea gure esparruko hedabideetan 2014an 4,8 milioi euro gastatuko direla eta Segurtasun Sailean 606 milioi edo abiadura handiko trenak 365 milioi euro irentsiko dituela. Milioi bat euro eguneko! ■



ASTE HONETAKO

zozketak



Bertsolari Txapelketa Nagusia

2 harpidunentzat bina sarrera

Azaroak 23, larunbata 17:30ean
Baztan pilotalekua
Elizondo (NAFAFRROA)

www.bertsozale.com

1



Bertsolari Txapelketa Nagusia

2 harpidunentzat bina sarrera

Azaroak 24, igandea 17:30ean
Atano III pilotalekua
Donostia (GIPUZKOA)

www.bertsozale.com

2

Ekain berri

3 harpidunentzat bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3



La Jodera
karibe
kantauri kantari

6 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2389. Argia)

BETSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA Gernika

- Pake Garzia Konde (Orio)
- Andres Alberdi Gorostiaga (Elgoibar)

BETSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA Tolosa

- Manuel Arregi Urrutia (Zestoa)
- Kandido Eizagirre Soraluze (Donostia)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Iñaki Zubeldia Otegi (Ikaztegieta)
- Jesus Miguel Zabalo Bilbao (Galdakao)
- Antonio Amondarain Aizpurua (Andoain)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Iñaki Urutxurtu Fernandez (Antsoain)
- Jan Ignacio Elozegi Aldasoro (Berastegi)
- Ederne San Martin Larrañaga (Eibar)

ARGIA KAMISETA

- Fray Juan De Zumarraga Institutoa (Durango)
- Gotzon Apaolaza Bernedo (Lasarte-Oria)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

Gunea

argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30
Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.com
www.argia.com/gunea



Argia 2014ko egutegia

- Zientzia eta teknologia
- Txistek
- Denboraren makina
- Bertsoak
- Ezagunek esanak
- Euskara "xuxenean"
- Mikro-ipuinak
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak



EGUTEGIA

9€

EGURREZKO
TAULA

50€

egutegia opari



BURNIZKO
EUSKARRRIA

5€

Salgai dagoeneko!